

UztARRIA

ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA



GIZAKIA HELBURUREN LASAOKO ZENTROA

ISOLATUTA, BERRIZ MUNDURATZEKO



erreforma integralak

dica



URRATEGI
INTERIORISMO
bone diseinua

www.urrategiinteriorismo.com
Aragueta 27 Arretxe 9
20600 Eibar 20730 Azpeitia



Indukzio plaka ke-erazgailu integratuarekin: isila, apenas
lkusten da eta **eraginkortasun** handikoa.
Milar Larramendin aurkituko duzu!

Teknologian eta **joeretan**,
urrats bat **aurretik**

Julio Urkixo, 16 bis - AZKOITIA
943-85 18 97

www.milar.eus

UZTARRIA.EUS/GIDA

Topatu behar duzuna: herriko dendak, tabernak, tailerrak eta
bestelako zerbitzuak.



**ETA ZUK,
ZER AURKITU
NAHI DUZU?**



UZTARRIA 246

2022KO OTSAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
IHINTZA ELUSTONDO



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 5 | Iritzia Mailo Oiarzabal, <i>Zer lan polita.</i> | 25 | Lehiaketa |
| 6 | Hantxe bertan Maite Beloki, Alemanian bizi den herritarra. | 26 | Erretratua Juanjo Bereziartua <i>Gaztaña</i> esataria. |
| 8 | Nire leihotik Jon Olaizola, <i>Biziraupena.</i> | 30 | Plazan bazan |
| 10 | Iritziak Irati Aranguren, <i>Zaintza</i> ; Hiromi Yoshida, <i>Euskararen bidez.</i> | 33 | Iritzia Oier Etxeberria, <i>Elektrizitatea.</i> |
| 12 | Elkarriketa Joseba Agirrezabalaga artista. | 34 | Bestaldetik Maite Bereziartua musika irakaslea. |
| 16 | Erreportajea Gizakia Helbururen Lasaoko zentroa. | 38 | Iritzia Miren Seguro, <i>Aterkipean.</i> |
| | | 40 | Iritzi grafikoa Itziar Aranguren. |
| | | 42 | Klik! Igor Aranbarri artisaua. |
| | | 46 | Iritziak Janire Alkorta, <i>Kombucha</i> ; Ignacio Arakistain, <i>Festarik ezean, jai!</i> |

UZTARRIA



Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
uztarrria@uztarrria.eus
www.uztarrria.eus

Zuzendaria:
Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Ihintza Elustondo
Erredaktore taldea:
Mailo Oiarzabal
Julene Frantzesena
Maialen Etxaniz
Ihintza Elustondo
Diseinu arduraduna
Itxaro Iraeta
Publizitate arduraduna
Angel Sarasua
Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Jon Olaizola

Irati Aranguren
Hiromi Yoshida
Itziar Aranguren
Olatz Alkorta
Oier Etxeberria
Miren Seguro
Janire Alkorta
Ignacio Arakistain
Nora Alberdi

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2500 ale





ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRIKAK

Jose de Arretxe, 17
Tel. 943.810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943.850445
AZKOITIA

EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia, 67 943-50 34 47 AZKOITIA
Urtiarle 9 bis 943-15 00 23 AZPEITIA



JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 58 08
Faxa.: 943 15 03 62




Aietza Autoak
Behar duzun konfiantzazko talerari!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
aiezta@aieztaautoak.com



EuroTaller EUROTALLER MULTIMARKA ZERBITZUA

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrokoak

Urko: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ikazargilanak@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Iuba
ahelkularitza

Analakutak
libros
lehenak
konkistak

Gestioi lanak
Finan administratibak
Gestio inmobiliariak

Tfn: 943 157 329 Faxa: 943 157 379
Eguraldi orria: 43-41 Iuba.ahelkularitza.es



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: 688 69 29 51



ADI
ARTE ETA
DISEINU
ESKOLA
ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Tallia 18:30 - 20:00

Jose Arretxe kalea, 3
943 81 20 08
arretxejosea@gmail.com
Matrícula urte osoan zabalik

IRENE ALTUNA
KOMAGENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.ikomagenda.com



AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Aran, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!

Zer lan polita



MAILLO OIARZABAL

Lanbide ofizial bakarra izan dut lan munduan hasi nintzenetik: kazetaritza. Horretarako ikasi nuen, baina ikasi, ikasi, jardunaren poderioz ikasi dut. Bestelako lanetan aritzen direnei entzunda, esango nuke hori dela ohikoena. Ari naizela, ari naizela ikasi dut, eta ikasten jarraitzen dut, eguneroko lana ahalik eta txukunen egiteko asmo bakarrarekin. Ez dago beste misteriorik.

Egiten dudan honetan onena izatetik oso urruti nabil, baina horrek ez nau larritzen. Neure burua beste lanbide batean irudikatu izan dudanetan, orduan bai, larritu izan naiz. Beno, ez dakit *larritu* den hitza; *etsipen* zehatzagoa da, agian. Izan ere, egunen batean beste lan baten bila hastea egokitzen bazait, zertan naiz 'ona'? Zerrendarik ez dut egin inoiz, baina nago, egiten hasita, laburra litzatekeela oso zerrenda hori. Esku lanetarako desastre hutsa naiz, hori horrela dela baieztatuko dizue ondo ezagutzen nauen edozeinek. Gauza askotaz datu pila bat ezagutu ditzakedala ere esango dizuite. Jakintza multzo horrek aplikazio praktiko oso mugatua duela neuk esango dizuet; zorionez, egiten dudan lanerako balio izan dit batzuetan, eta Trivialean ere ez naiz gaizki moldatzen, baina horraino, kito.

Besteen lanbideak ez zaizkit inoiz errazak iruditu izan, alderantziz. Sarri miresten dut besteen abilezia, neu ez naizelako hiru-lau plater handi besaurre batean eta ogiaren xextoa beste eskuan hartu eta pauso arinean eramateko gai, esaterako. Igeltsero, iturgin, saltzaile, jostun, zurgin, altzarigile, elektrikari, mekanikari, mediku, erizain, irakasle, zaintzaile... Neureak hala dituelako, pentsatzen dut besteen lanek ere izango dituztela alde onak eta txarrak, baina ez naiz gai horietako lan bakar bat erraza edo eroso dela esateko; aldiz, eta berriro diot, mirestu egiten ditut gehienak, denak ez esatearren.

Horregatik, deigarria egiten zait zenbat aldiz esan didaten "begira, zer lan polita" neureagatik ari direla. Besteren lana sailkatzeko eta neurtzeko erraztasun hori, neuri hain zaila egiten zaidanean. Ez nago seguru, baina uste dut kazetari-bai-baina-herriko-berriemaile-bakarrik izateak izan duela zerikusia jendearen pertzepzio horretan: kazetari, baina kazetari txiki, alegia, pare bat tontakeria idatz eta egunean bitan, hirutan ez bada, kafea hartzen, ederki baten. Pentsakera baten karikaturizazioa egin dut, baina ez pentsa askoren benetako ustetik hain urruti dagoenik. Kezkagarriagoa iruditzen zait aspalditik, baina azkenaldian inoiz baino gehiago, kazetari lana zer den eta zer ez den, eta kazetari lana nola egin behar den eta nola ez dakiela gero eta jende gehiagok; kazetariok ez beste ia edonork, esan nahi baita. Eta hala ere, bai, ze demontre, bada polita gure lan hau... batzuetan bederen. ■■■

**TRIVIALEAN ERE EZ
NAIZ GAIZKI
MOLDATZEN, BAINA
HORRAINO, KITO**

Maite Beloki: "Bremengo jendea isila eta lasaia da, orokorrean"

TESTUA JULENE FRANTZESENA

ARGAZKIA MAITE BELOKI

Maite Beloki (Azpeitia, 1967) Bremenen (Alemania) bizi da duela 28 urtetatik. Beka bat tarteko joan zen hara, eta orduz geroztik, han du bizitokia. Terapia pedagogo lanetan aritzen da gaur egun. Azpeitira bizpahiru hilabetez behin etorri ohi da, gertukoekin egotera.

Nolako da Bremen?

Bremenek 550.000 bat biztanle ditu. Iparraldeko itsasoan itsasoratzen den Weser ibaiak zeharkatzen du hiria, eta kresal usainak nahiz kaioek sentipen atseginak eragiten dute. Gainera, paisaia oso berdea du, eta hiri laua da. Horregatik, tranbia eta bizikleta dira garraiobide nagusiak. Hiri lasaia da, ondo antolatutakoa. Denetarik egin dezakegu, baina ez dago hiri handietako estresik.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Pasaia berdea eta edozein lekutara bizikletaz joan ahal izatea. Kultur eskaintza handia izan ohi da Bremenen, gainera; zinema, kontzertuak, antzezlanak... Bizitza sozial handia du hiriak; edozein astegunetan jendez leporaino egoten dira jatetxeak eta kafetegiak. Unibertsitateari esker, milaka gazte bizi dira bertan, eta horrek giro handiko hiri bilakatzen du.

Eta gutxien?

Hotza eta hezetasuna. Batzuetan, berotasunik eta atxikimendurik ez dute agertzen herritarrek. Bestalde, oso orokorra da, baina asko kexatzen den jende asko dago, eta hori ez zait gustatzen.

Duela ia hiru hamarkada, zer dela-eta joan zinen Alemaniara?

Eusko Jaurralitzak alemana ikasteko beka bat eman zidan, eta praktikaldia Alemanian egiteko aukera izan nuen. Praktikaldia bukatzean, alemana hobetzea erabaki nuen, eta han gelditu nintzen. Haur Hezkuntza ikasi nuen gero, eta handik gutxira haurreskola elebidun bat zabaltzeko proiektuan parte hartzea eskaini zidaten.

Alemaniara egokitzea asko kostatu al zitzaizun?

Pixka bat bai, alemanez ondo hitz egiten ikasi arte.

Horra joaterako, zer uste zenituen alemaniarrez?

'Beldur' pixka bat nien, jende serioarekin eta lagunak egiteko gogo gutxi zutenekin topo egingo nuela uste bainuen. Zortea izan nuen, ordea; guztiz alderantzizko egoera bizi izan nuen, hainbat herrialdetako pertsonak ezagutu bainituen denbora gutxian.

Nolakoak dira, ordea, alemaniarrek?

Bremengo jendea isila eta lasaia da, orokorrean; Alemaniako beste hiri batzuetakoak baino itxiagoak dira, agian, herritarrek, baina edukatuak eta atseginak dira. Gainera, migrazioa tarteko, kultura nahasketa handia dago.

Egia al da alemanak karratuak direla?

Jendea zuzena, ordenatua eta diziplinaduna izaten saiatzen da, baina ez dakit hori karratua izatea al den. Adibidez, errepidea semaforoa gorrian dela gurutzatzen baduzu, ziurrenik norbaitek zerbait esango dizu. Arau batzuk zorrotz errespetatzen dituzte. Burokratikoki ere zehatzak dira: gertatu izan zait paketeren bat edo gutun zertifikaturen bat entregatu nahi ez izatea, Beloki *q*-rekin idatzita zegoelako. Puntualtasunari balio handia ematen diote, eta gauzak zehaztasunez antolatzen dituzte, laneko bileretan, adibidez.

Ohitu al zara horko ohituretara?

Oro har, bai. Jendeari berorika hitz egitea, baina, ikaragarri kostatzen zait. Zuka hitz egiteko 'baimena' eskatu behar zaio ezagutu berri duzun pertsonari. Bestalde, ohitu naiz emakumeek zein gizonak komuna eserita erabiltzera; horregatik egoten dira hain garbi komun publikoak. Horrez gain, ohitu naiz etxeetara sartzeko oinetakoak kentzera ere; etxe ia guztietan izaten dituzte bisitarientzak zapatilak. Alemanen ohitura bat Azpeitiko lagunengana ere eramanez dut: topa egiterakoan, begietara begiratu eta "*prost*" esaten dugu.

Herrimina sumatzen al duzu?

Familiaren eta lagunaren falta sumatzen dut. Eta mendira joatea eta jendearen berotasuna zein naturaltasuna ere bai. ■■■



Biziraupena



ARGAZKIA ETA TESTUA: JON OLAIZOLA

Zure borrokaren zergatia jakitea.
Eraisten zaituzten bakoitzean
altxatzea.

Bizkorrago den bati aurre hartzea,
azkarrago den bati ziria sartzea,
indartsuago den bat zapaltzea.

Zorigaitzari begiratu eta ausardiaz
aurre egitea.

Hori da naturak nahiz gizarteak
sarri eskatu ohi diguna.

Hori da hain erraz esan eta
hainbeste kostatu ohi zaiguna. ■■■







Zaintza

Euskaldunok aspalditik ditugu arazoak lurraldeen mugekin. Azken bi urteetan, berriz, mundu osoak pairatu behar izan du mugak ezin gaintitzearen borroka. Espazio fisikoko mugak asko izan daitezke, bai kontinenteen artekoak, bai estatuen artekoak, baita etxeke logelaren eta egongelaren artekoak ere. Enpatikoak izateko besteen oinetakoak jantzita bizitzea bezalako botikarik ez dago. Logelan hamar egun igaro dituen horren bizipenak nola ulertuko ditut itxialdia terrazadun 120 metro koadroko etxean igaro badut? Kuadrilla ondoko herrian duenaren ezinegona gurasoak bi herri haratago bizi dituenak ulertuko du ondoen. Badoaz mugak arintzen, baina aire euskaldunetik arnasten duenak

oraindik kateak tinko sentituko ditu.

Kontuak kontu, gure lagunartean badira bizkaitarrak, gipuzkoarrak, nafarrak eta abar. Eta hankaz gora dagoen gizarte honetako arauak tarteko, gure biltzeko ohiturak asko aldatu dira. Duela aste batzuk elkartu ginen aspaldiko partez, musikaz alaitutako lagunarte jatorrean. Ilargiaren konpainian han geunden afari mokadutxo egiteko prest. Bazen tartean kide berri bat, gurekin elkartzeko gogoz bertaratu zena. Eta ttak!

BA AL DAKIGU GURE BURUA ENTZUTEN? EMATEN DIZKIGUN MEZUAK JASOTZEN AL DITUGU?

Afaritarako orduan nire ondoan eseri zen. Kirolari profesionala da bera, eta "zertaz hitz egin behar dugu elkarrekin?", nioen neure baitan. Herri euskaldunetan jaioren arren ditugun zaletasunak tarteko, ardi beltza sentitzeaz, lanaz, osasunaz, bizitzaz eta zaintzaz jarduteko beta izan genuen. Iluntze interesgarria. Halatsu esan zuen: "Norberak zaindu behar du bere osasuna, enpresak ez zaitu zainduko!".

Gizarte aurreratu eta modernoan bizi garela esaten da. Azken urteetan aldatu da, bai, egunerokotasunean indartu beharko genituzkeen lehentasunen zerrenda. Eta tartean da zaintza, norbere buruaren zaintza. Ba al dakigu gure burua entzuten? Ematen dizkigun mezuak jasotzen al ditugu? Zer egin nire burua goxatzeko, zaintzeko, babesteko?

HAUXE BAI JENEROA!



Ondokoen zaintza ere asko eskertzen da. Kortesia, "zer moduz?" esanez agurtzeko ohitura dugu herri honetan, baina zenbatetan da galdera hori mimoz egina?

Ikerrek enpresaren zaintza aipatu zuen, eta egia esan, zorteduna sentitzen naiz lantokian baditudalako bihotzetik zer moduz nagoen galdetzen didaten ikasleak zein lankideak. Badira, bai, konpromiso galdetuko dutenak, baina baita maitasunetik galdetuko dutenak ere –nahiz eta, agian, ni bezala, sentimenduak adierazteko armadura jantzita izanda, kostatu egiten zaien gertutasuna azaltzea–. Beste batzuk, berriz, beren argi magikoa hartuta etortzen dira zer moduz zauden jakitera. Nire kasuan, magoak hiru baino gehiago dira, eta eskerrak hor zaudeten!

Baina pertsonetatik haratago, badaude hainbat eskuizkribu. Eta dirua tartean dagoenean, akabo zaintza. Nire mahaikide hark bere osasuna enpresari ez zitzaiola axola zioen, eta nire lankide batekin oroitu nintzen. 34 aste haurdun eta han ibili dugu lantokian, ikasleei klaseak ematen, eskailerak gora eta behera, aldapan gora eta behera. Begietara begiratu eta nekea zen bera deskribatzeko erabiliko nukeen lehen hitza. Bera nekatuta, eta ni inpotentzia, eskuak lotuta genituelako noizbait legegizonen batek onartutako paperek balio handiagoa zutelako emakume haren osasunak baino.

Aurreratuta eta balioetan hezita gauden gizarte honetan, gogoratu, zeure buruaren zaintza zure kontu! (Eta ingurukoek zaintzen bazaituzte, goxatu!). ■■■

HAN ETA HEMEN



HIROMI YOSHIDA

Euskararen bidez

COVID-19 gaitzarekin aspertuta, euskal munduan ikusi eta ikasi izan ditudan zenbatzen hasi naiz. Hona hemen horietako batzuekin osatu dudan zerrenda: Lazkaoko barnetegian hasi nintzen euskara ikasten, eta egunetik egunera, neure burua aurrerapausoak ematen ikustea zer gozamen handia; Lazkaoko irakasleekin, ikaskideekin eta herritarrekin euskaraz komunikatzea zeinen pozgarria; txikiteoan ibiltzeko ohitura zoragarria; euskarazko txisteekin barre asko egitea; euskal kantuak buruz ikasten disfrutatzea (batez ere, Benitorenak); euskaldunen eskuzabaltasuna (edozer arlotan); euskaldunen sendotasuna eta bizkortasuna (egoera larrietan aurkitzen zaretenean ere ez duzue negar egiten); euskaldunek norberaren euskalkia estimatzen duzue (gurean ere hala balitz!); euskal munduan murgildu ahala, politikari garrantzia ematen hasi nintzen; euskararen egoera ikusita, munduko gutxiengoak ere kontuan hartzen hasi nintzen; bertsolaritza ezagutu ondoren, neure herriko ahozko tradizioa beste ikuspuntu batetik begiratzen ikasi nuen...

Euskal Herrian ikusitako gauza gehiago aipatzeko prest nago, baina hemen ez dira kabitzen, eta hurrengo baterako utziko dut zeregin hori. ■■■



"Artea sentipenen nahasketa bat da niretzat"

JOSEBA AGIRREZABALAGA ARTISTA

Artearen munduan urratsak egiten jarraitzen du azpeitiarrak. Urteetan egindako lanaren fruitua argitara ematen hasia da, bi sormen beka jaso baititu azken hilabeteetan. Musikak erakarri zuen artera, baina denboraren joanak gauzak ikusteko modua "aldatu" diola aitortu du.

Testua: **Julene Frantzesena**. Argazkiak: **Unai Sorrarain eta Joseba Agirrezabalaga**.

Artearen munduan murgilduta urteak daramatza Joseba Agirrezabalagak (Azpeitia, 1982), eta azkenaldian, lan hori ikusarazten hasia da, baita egiten duenarekin gozatzen ere.

Bi sormen beka jaso ditu, gainera: Alkizako (Gipuzkoa) Fagus-Alkiza interpretazio zentroaren Sormenaren Kabia eta Azpeitiko Udalaren nahiz Kulturaz kooperatibaren sorkuntza beka. Marraztea ez ezik, musika ere oso gustuko du.

Artista grafikoa zara, baina zure burua ez duzula artistatzat hartzen esana duzu. Zergatik?

Hori alde ekonomikoari begiratuta esan nuen; bestela ez daukat arazorik nire burua artistatzat hartzeko. Dena den, arraroa egiten zait; izan ere, artea ez dut ogibidetzat. Baina tira, ez da zaletasun soila ere, beraz... Proiektu txikiak baditut esku artean, baina langabezian nago. Azken urteetan lehen baino denbora gehiago eskaini diot arteari.

Eta zer moduz?

Lehen ere eskaintzen nion denbora sormenari; beste lan batzuetan arituta, sormenari eragiteko gogo sortzen zitzaidan. Orain, baina, hainbat lan sortu zaizkit, beka pare bat jaso ditut... Hala eta guztiz, bizimodua ez zait asko aldatu.

Arte ikasketak eginga zara. Arteari lotuta, etena ere izan zenuen, baina berriz hasi zinen gerora, Madrilen master bat egiten. Nolakoa izan da zure ibilbidea?


2006an bukatu nituen Arte Ederretako ikasketak. Tarte bat igarota, 2012an, Artearen Ikerkuntza masterra egin nuen Madrilen. Ikasketei dagokienez, oraindik ere irekita nago; agian, egunen batean tesiren bat egingo dut. Interesaren arabera egiten ditut gauzak, baina batzuetan beharra ere sentitzen dut. Madrilen egin nuen masterra, adibidez, oso teorikoa zen; etxean egin genituen lan guztiak, eskoletan ez genuen arkatx bat ere hartu. Ondo etorri zitzaidan zer nahi nuen egin eta zer ez ikusteko.

Eta zer egin nahi zenuela ikusi zenuen?

Hain zen teorikoa masterra, ezen oso gogorra egin baitzitzaidan; gehitxo izan zen niretzat. Askok irakurri nuen, eta asko sartu nintzen aukeratu nuen gaian; Zumaiako flyschetatik abiatuta denborari buruzko gogoeta gauzatu nuen. Baina astuna izan zen. Gaur egun ez nukeen horrela egingo.

Artearen munduan, zer diziplina gustatzen zaizu gehien?

Musika. Horregatik hasi nintzen Arte Ederrak ikasten. Konbentzionala ez den musika gustatzen zait, baita bideoak egitea ere. Ikasketei ekitean, baina, denetarik probatzen hasi nintzen. Hasieran, zenbait gauza egitea pixka bat kostatzen



bazitzaidan ere, gustua hartzen hasi nintzen gerora. Musikaren arloan proiektu batzuk badituz martxan: Bilboko Mikel Vegarekin osatutakoa edo Paezur izeneko bakarkako proiektua.

Zer-nolako musika proiektuak dira horiek?

Vegak eta biok gitarra jotzen dugu, eta inprobisazioa lantzen dugu, noizean behin elkartuta. Zaratzua da gauzatzen dugun inprobisazioa; isiltasunarekin eta zaratarekin jotzen dugu. Bartzelonako ekoiztetxe batekin biniloa kaleratuko dugu, eta azken boladan horretan nabil. Izan ere, azal guztiak eskuz egin behar ditut –300 bat binilo izango dira, guztira–. Bestalde, Itziar Martiegirekin zarata egiten aritu naiz; musika elektronikoa, baina suntsituta. Gainera, lehenago Fernalia taldean jotzen aritutakoa naiz. Saltsa txiki askotan ibili naiz, eta musikaren munduan jende ugari ezagutu dut. Horiek diskoen eta kaseteen azalak egiteko eskatu izan didate. Adibidez, Kaliforniako [AEB] musikari bati egin nion azala, baita Bielorrusiako bati ere. Bestalde, otsailean Igela argitaletxeak kaleratuko duen Cormac McCarthyren *Child of God* eleberriaren azala egin dut.

Marrazketaren mundura jauzia egitean, zer sentitu zenuen?

Marrazten hastean ez nuen ziurtasunez jarduten, baina denborarekin ikusi nuen marrazteko era asko zirela. Alaitzekin [Alberdi] asko marrazten nuen, eta asko animatu ninduen hark.

Marrazkiak, pintura eta hainbat teknika grafiko erabili izan dituzu zure lanetan. Zergatik?

Beti izan naiz gauzak probatzekoa. Teknika falta sumatzen nuen, eta ziurrenik horregatik erabili ditut bide bat baino gehiago; izan ere, teknikekin esperimentatzea gustatu egiten zait. Teknika baino nahiago dut bitarteko hitza erabiltzea, egiteko moduak ez baitu zertan teknikoa izan behar. Bitarteko bakoitzak erritmo bat ematen dit; adibidez, marrazki bat erritmo lasaian egingo dut, eta serigrafia azkarragoa da. Urteen poderioz konturatu naiz erritmo horiek nola eragiten didaten lan egiterakoan.

Sormenaren Kabia beka eskuratu zenuen urrian. Erritmo desberdinetako lanak egiteko aukera eman al dizu horrek?

Idea horrekin aurkeztu nintzen deialdira. Askotariko erritmoak probatu nahi nituen, eta horiek konbinatu; izan ere, boligrafoarekin marrazki bat egiteko denbora behar da, baina trokoloarekin berehala egin daiteke irudia. Asko gustatzen zait bitartekoak nahastea.

Natura ere presente izan da zure lanetan. Zer da natura zuretzat?

Bai eta ez. Natura denean dago presente; forma fraktalak marrazten ditut askotan, naturan daudenak. Dena den, lanak egiten ari naizenean, ez da hain presente egoten natura. Jendeak esan izan dit, abstraktuak izan arren, organikotik asko dutela nire lanek. Naturari asko erreparatzen diot, baina beste edozein gaik naturak bezainbeste indar izan dezake nire lanetan.

Sormenaren Kabia bekaren esperientziaz zer balorazio egiten duzu?

Lagun batek esan zidan beka deialdia zabalik zela; nik ez neukan ideiarik ere. Eskaera egin nuen, eta handik gutxira esan zidaten niretzat zela beketako bat –bi ematen dituzte–. Egia esan, ez nuen espero, sekula ez naiz aurkeztu halako deialdietara, eta... Beti neure kasa aritu izan naiz. Horrelako bekek balio dute jendeak zertan ari naizen jakiteko.

Hiru aste egin ondoren Alkizan. Zer moduzko esperientzia izan zen?

Hiru aste izan nituen lana gauzatzeko. Alkizako nekazaletxe batean egon nintzen aste horietan, eta oso gustura aritu nintzen lanean. Astia izan nuen lana gauzatzeko, ez bainuen beste zereginik. Gainera, beste beka jaso zuen Ione Larrago ilustratzaile antzuolarra nirekin aritu zen lanean.

Natura zer-nola sartu duzu proiektuan?

Helburua nire lan egiteko era laburbiltzea eta obrak ikusgai jartzea zen, eta naturako elementuak txertatu nahi nituen obretan. Hiriko antropologia lantzen duen eta lurreko plastikoak-eta lanetan sartzen dituen Londresko neska bat izan zen inspirazio iturria. Hernio-Gazume eremua, baina, babestuta dago, eta han ez dago plastikorik; hostoak eta bai, baina ez zitzaizkidan horiek interesatzen. Horregatik, hasieran zaila egin zitzaidan lanetan natura txertatzea. Egun batean, estudioa basora eramatea otu zitzaidan; euritan aritu nintzen akuarelekin margotzen. Eurria izan da lanetan sartu dudana naturako elementua.

Zenbat artelan egin dituzu orotara?

Hamabost bat izango dira. Xilografia nahiz monotipia bitartekoak erabili ditut horiek egiteko. Lan batzuk azkar egin ditut eta beste batzuk motelago. Hainbat lan egitean, azkarregi ari nintzela sentitu nuen, eta boligrafoarekin gauzatu nituen beste batzuk, erritmo motelagoan.

Hasierako helburuak bete al dituzu?

Lanetan natura sartzeari idealizatuta neukan, eta horixe izan da hasierako ideiatik aldatu den gauza bakarra. Lanak egiteko hiru aste edukitzea luxua izan da, oporretan nengoela sentitzen nuen; izan ere, orain arte denboraren bila aritu izan naiz.



**"URTEEN PODERIOZ KONTURATU
NAIZ ERRITMOEK NOLA ERAGITEN
DIDATEN LAN EGITERAKOAN"**

**"DISFRUTATU PROZESUAN EGITEN
DA, PENTSAMENDUAK ORDUAN
PASATZEN DIRA-ETA BURUTIK"**

**"ERROREARI, ZEHAZKI, GARRANTZI
HANDIA EMAN IZAN DIOT, EZ
NAIZ-ETA BATERE PERFEKZIONISTA"**

Gustatzen zaidan horretan aritzeko egonaldia egiteko aukera izatea... Zirkuitu artistikoan sartzeko curriculum oparoa izan behar da, eta askotan esaten diot nire buruari pausoa emateko beranduegi ote den. Dena den, salbuespenak badira, eta poztekoa da arreta proiektuan jartzen duen Sormenaren Kabia gisako bekak izatea.

Otsailaren 10era arte daude zure lanak ikusgai Alkizako Urmara museoan. Zer da zuretzat lanak erakustea?

Niretzat emaitza baino garrantzitsuagoa da lan prozesua. Disfrutatu prozesuan egiten duzu, pentsamenduak orduan pasatzen dira-eta burutik. Hori bai, erakusketa jarritz gero, bizirik jarraitzen du lanak. Izan ere, askotan zerbait egin eta tiraderan geratzen da, eta egindakoak balioa galtzen du. Artea sentipenen nahasketa bat da niretzat.

Azpeitiko Udalaren eta Kulturaz kooperatibaren sormen beka ere eskuratu duzu, Alaitz Alberdirekin egiten ari zaren Puzle proiektuari esker.

Puzle zenari Split izena jarri diogu behin-behinean. 2014an, xilografia handiak egiten hasi ginen; irudi handiak ziren, eta tokoloak duen tamainagatik, horiek zatitzea erabaki genuen. Garrantzi berezia ematen ari gara irudiaren zatiketari; marrazkiari baino, irudia erakusteko moduari ari gara erreparatzen. Zatiketa oinarri duen lana da, eta eskulturara ari gara gerturatzen.

Alberdirekin batera, Labana eta Orbana esperimentazio lantegia gidatu duzu, Dinamoa sormen gunean. Zer moduzko esperientzia izan da?

Oso esperientzia aberasgarria izan da. Jendeak bikain erantzun zuen, eta dinamikoa izan zen. Nabaritzen zen jendeak saioetan deskonektatu egiten zuela, eta hori ikustea ederra izan da guretzat. Ea berriz egiteko modurik dugun.

Zer da irudia zuretzat?

Gaur egun dena da irudia, irudiaren munduan bizi gara. Split proiektua ere horixe da; irudi ugari ditugu inguruan une oro, irudiaren bonbardaketa bizi dugu egunerokoan, eta hori zatikatzea garrantzitsua da. Izan ere, gaur egun ez dakizu irudi asko osoak al diren ere. Irudia oso garrantzitsua da, eta irudiak duen garrantziaz jabetzea ere bai.

Arteak zer ekarpen egin dizu urteotan?

Gauzak ikusteko era erabat aldatu dit arteak. Irteera bat ere eskaini dit; marrazten ari naizenean asko lasaitzen naiz, adibidez. Interesa piztu dit, eta probatzen aritzeko aukera ere bai; orain badakit zer egin nahi dudana. Proba-errore bikoan aritu izan naiz urteetan, eta erroreari, zehazki, garrantzi handia eman izan diot, ez naiz-eta batere perfektionista. ■



Gozamen iturri zena, galbide

Gizakia Helburu proiektuaren Lasaoko zentroak 30 urte bete ditu. Droga mendekotasuna izandako 1.450 lagun inguru igaro dira urteotan handik. Erabiltzaileen profila aldatu bada ere, arazoaren muinak berbera izaten jarraitzen du: emozioen kudeaketa.

Testua eta argazkiak: **Ihintza Elustondo.**

Laranja koloreko hormak dituen eraikin bat dago Lasao auzoaren erdigunean. Jauregiaren izena irakur daiteke kartel batean: San Millan. Eliza dauka ondo-ondoan. Laranjondo bat sarreran, loreontziak leihoetan, pala bat eta erratza sarreran. Jendearen joan-etorria suma daiteke atea gurutzatzean. Hautsak kentzen ari dira batzuk, besteak sukaldean lanean, beste zenbait baratzean. Emakume baten ahotsa entzun daiteke kantuan. Nola azaltzen diren bizipozaren arrastoak gunerik tristenetan.

Izan fundazioak sustatutako Gizakia Helburu proiektuak kudeatzen du gunea, eta gaur-gaurkoz, droga mendekotasuna duten 26 lagun bizi dira han; normalean 32-34 lagun izan ohi dira, baina izurria tarteko, ohi baino jende gutxiagok hartzen du han aterpe. Kontsumoarekin duten arazoaz jabetuta, gizartetik aldendu dira, profesionalen laguntzaz lan pertsonala egin eta osatuta berriz jendartean bizitzera itzultzeko. Isolatuta daude, berriz munduratzeko.

1984an sortu zen Gizakia Helburu elkarte Madrilen, droga mendekotasuna zuten pertsonen eta haien familiei laguntzeko helburuarekin. Ordutik, hainbat zentro jarri dituzte martxan, horietako zenbait Euskal Herrian; bat Lasaoen. Zentro guztiek ez dituzte behar berberak asetzen. Izan ere, erabiltzaileek Gizakia Helburu proiektuan laguntza eskatzen dutenetik, hiru fase gainditu behar izaten dituzte. Harrera fasea da aurrenekoa; fase horretan, errotik mozten dute kontsumoa. Behin prozesu hori gaindituta, komunitatean denboraldi bat eman ohi dute, osatzeko eta lanketa pertsonala egiteko. Ondoren, bergizarteratze prozesua hasi ohi dute; azken fase horretan, ohiko bizimodura itzultzen hasten dira pixkanaka, eta berriro drogaren amarruan ez erortzea izaten da erronka. Bigarren faseari dagokion zentroa da Lasaokoa.

Lasaoko komunitatea zabaldu aurretik, halako beste gune bat bazegoen Gipuzkoan; Hernanin, zehazki. Sasoi hartan, ordea, mendekotasun arazoak ugariak zirenez, halako zentroen eskaera handia zen, eta arazo bilakatu zen espazio falta. Orduan, Felix Azurmendi zen Gizakia Helburu proiektuaren Gipuzkoako presidentea, eta hark gotzaindegiarekin hitz egin zuen, arazoaren berri emateko. Horren aurrean, Lasaoko San Millan jauregia eskaini zieten beste komunitate bat osatzeko. Hasieran, auzotarrek erresistentzia azaldu zuten arren, azkenean lortu zuten proiektua auzoan errotzea eta zentroa martxan jartzea. Gunea abandonatuta zegoenez, sustatzaileek konponketa lanak egin zituztenean eta eremua egokitu zutenean ireki zituen ateak komunitateak, 1991n. Hala, iaz 30 urte bete zituen.

Oscar Arregi (Eibar, Gipuzkoa, 1965) izan da zentroko arduraduna azken 11 urteetan. Hark adierazi duenez, gaur egun, Gizakia Helburu proiektuak bi komunitate ditu Gipuzkoan; Lasaokoaz gain, martxan jarraitzen du oraindik ere Hernanikoak. Arregik bi zentroen arteko ezberdintasunak azaldu ditu; haren arabera, Lasaoen egon ohi dira kasurik konplikatuena: "Zailtasun gehiago dituzten erabiltzaileak etortzen dira hona, kontsumitzen denbora gehiago daramatenak, familiarteko nahiz lagunarteko harremanak gehiago Kaltetu dituztenak, arazo judizialak dituztenak...". Badira Martuteneko (Gipuzkoa) kartzelatik Lasara lekualdatzen dituzten zenbait erabiltzaile ere. Hernanin, berriz, konplikazio gutxiago dituztenak egon ohi dira: "Adin txikiagoa dutenak, kontsumitzen denbora gutxiago



Oscar Arregi izan da Lasaoko Gizakia Helbururen zentroaren arduraduna 11 urtez. MAIALEN ETXANIZ

daramatenak, arazo judizial gutxiago dituztenak, familia baliabide gehiago dituztenak...".

Lasaon, beraz, benetako tragediak bizi dituzten pertsonak egon ohi dira. Donostiako Ulia Enea zentroan kontsumoa erabat eteteko hiru hilabeteko harrera fasea egin ostean, urtebete inguru ematen dute Lasaon, beren eguneroko bizimodutik urrunduta. Kontsumitu gabe emate dute denbora hori; Arregiren arabera, gainera, norbait kontsumitzen harrapatzea zentrotik bidaltzeko motibo da. Erabiltzaileak "animoz nahiz fisikoki" errekuaratzea da egonaldiaren helburua, eta galdutako harremanak berreskuratzen ere joaten dira, pixkanaka.

Eguneroko bizimodua

"Gizarte txiki baten gisakoa" da Lasaoko zentroa, Arregik adierazi duenez. "Goizean jaikitzean, erabiltzaileek beren eginbeharrak egiten dituzte: logela jaso, gosalduta, medikazioa behar badute hartu...". Hark nabarmendu duenez, ehuneko handi batek hartzen ditu botikak: "Droga mendekotasunaz harago, bestelako arazoak dituzte askok: batzuek antsietate arazoak, besteek buruko gaitzak... Batzuk izan daitezke drogen

kontsumoaren ondorioz sortutako gaixotasunak, eta beste batzuek ez dute zertan hala izan". Goizeko errutina horren ostean, batzuek eskolak jasotzen dituzte zentroan bertan, eta besteek bestelako zereginak egiten dituzte: sukaldean aritu, mantenu lanak, etxea garbitu, baratzea landu...

"Garrantzitsua da erabiltzaileek errutina bat izatea eta lan mundurako beharrezkoak diren gaitasunak barneratzea", adierazi du Arregik. Etxe guztia autogestio bidez kudeatzen dutela azpimarratu du.

Eginkizun horiez gain, hainbat terapia saio egin ohi dituzte erabiltzaileek, barrura begirako lana egiteko. "Zenbait saiotan, bakoitzak nola sentitzen den esaten du, eguneroko kontuak azaltzen ditu, familiari dagozkionak... Beste saio batzuetan, berriz, lehenaldiko momentuak ekartzen dituzte gogora, eta une horien gaineko kontzientzia hartzen dute: noiz ez zituzten erabaki onak hartu, zertan hanka sartu zuten... lantzen dute. Ariketa horien helburua da mendekotasuna izatera zerk bultzatu dituen ondorioztatzea; mendekotasun horretan erortzeko arrazoiak zeintzuk izan diren jabetzea". Izan ere, Gizakia Helburu proiektuaren sustatzaileek argi dute pertsona bati zerbait gertatzen zaiola adierazten duela drogaren kontsumoak: "Substantzia sintoma baino ez da". Hau da, Arregiren arabera, mendekotasuna duten pertsonen mina baretzeko baliatzen dute droga, ondoeza murrizteko. Horregatik, "oso garrantzitsua" da iraganaren errepasoa egin eta kontsumitzeko arrazoiak zein izan ziren deskubritzea. "Berriz ere kontsumoaren bidea hartu beharrean, arazoaren aurrean beste baliabide batzuk izateko aukera ematen dizu horrek; gertatzen zaizun hori beste modu batera konpontzeko".

Profila aldatzen

Azken 30 urteotan asko aldatu da erabiltzaileen profila. 1980ko hamarkadan, drogen kontsumoa askoren hondamendi bilakatu zenean, jende gehienak heroinarekin zituen arazoak. Gaur egun, baina, bestelako substantziak kontsumitzen dira. "Egun, heroina gutxi kontsumitzen da, nahiz eta orain gorakada izan den. Hala ere, beste droga batzuekin alderatuta, gutxienekoa da heroinaren kontsumoa. Lasaoko komunitatera iristen direnen ehuneko handi batek alkoholarekin ditu arazoak. Alkoholaren ostean, kokainak eragiten ditu arazo gehien, eta horren ostean, anfetaminek, haxiak eta heroinak; ordena horretan". Alkohola oso normalizatuta dagoen arren, haren kontsumoak jendeak uste baino "kalte handiagoak" eragiten dituela nabarmendu du Arregik.

Lasaoko komunitatea zabaldu zutenetik, 1.450 erabiltzaile inguru igaro dira zentrotik, eta horien artean, nabarmena da gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasuna. Arregiren arabera, erabiltzaile horien %85 gizonak eta %15 emakumeak izan dira, batez beste. Horren zergatiaz galdetuta, ez daki zein den erantzuna. "Beti horrela izan da. Urtetik urtera aldatu egiten dira kopuruak, baina gutxi gorabehera, antzekoak izan ohi dira beti ehunekoak". Kontrara, zentroko langile gehienak emakumeak izan ohi dira. Gaur-gaurkoz, zortzi lagunek lan egiten dute han, eta boluntario talde batek laguntzen die erabiltzaileei zenbait zereginetan.

%70ek amaitzen dute

Lasaoko prozesua amaitzean, bergizarteratze fasea hasten dute erabiltzaileek. Egonaldian zehar ikasitako guztia praktikan jartzeko unea izan ohi da hori, eta pixkanaka, lan munduarekin harremana izaten ere hasten dira. Arregik dioenez, Lasaoko egonaldiaren ostean, "jendeak



hobera" egiten du. "Komunitatea amaitzen duen pertsonen zenbatekoa altua da. Oro har, jende gehiagok abandonatzen du programa lehen fasean bigarrenean baino. Lasaoko zentroko erabiltzaileen ehuneko handi bat igarotzen da bergizarteratze fasera. Hirugarren fase horretan aurkitu ohi dituzte arazorik handienak: eguneroko bizimodura itzultzen hasten direnean tentazioak izan ohi dituzte, orduan agertu ohi dira krisiak, eta orduan jarri behar izaten dute praktikan ikasitako guztia, beren bizitzan jabe izan daitezen. Gure helburua da pertsona horiek baliabideak izatea berriro ere ez dezaten drogetara jo; autonomia izan dezatela, independentzia...".

Arregik esku artean dituen datuen arabera, %70ek amaitzen dute Lasaoko komunitateko egonaldia, eta gainontzekoek lehenago uzten dute zentroa. Abandonatzen duten %30 horietatik "ehuneko handi bat" berriz itzultzen da programara. Era berean, bergizarteratze fasera igarotzen direnen artean, %60k bukatzen dute prozesua, eta gainontzekoek ez; prozesua amaitzen ez duten %40 horietatik "beste ehuneko handi bat" itzuli egiten da programara. "Fase guztiak amaitzen ez dituztenak askotan itzultzen dira. Dena den, hori guretzat ez da erabateko galera, prozesuaren parte izan daitekeelako abandonatzea eta berriz itzultzea". Hala ere, kroniko bilakatzen diren zenbait kasu ere badirela nabarmendu du.

Gakoa: emozioen kudeaketa

Duela urte batzuk bai, eta orain ere bai; izan legezko ala ez, gizartean drogak kontsumitu egiten dira. Horretan ez dago inolako zalantzarik. Batzuek substantzia horien kontsumoa hobeto kontrolatzen dute, eta beste batzuek kontrolatzeko gaitasuna galtzen dute, beren bizitza hondamendi bilakatzeraino. Baina zergatik sartzen dira pertsona batzuk iteerarik gabeko zurrumbilo horretan, eta beste batzuk ez? Arregik jende askoren esperientziak gertutik bizi izan dituen arren, ez dauka galdera horrentzako erantzun argirik: "Zergatik erortzen da bat eta haren ondokoa ez? Ez dakit erantzuten. Egoera pertsonal oso ezberdinetako jendea, baliabide eta gaitasun oso ezberdinak dituen, azkenean leku berera iristen da".

Dena den, badaude errepikatzen diren zenbait patroi. "Ziurrenik, egon daitezke baldintzatzaile batzuk: desegituratutako familia batean haztea, heziketan mugarik jarri ez izana, emozioak kudeatzeko zailtasunak izatea... Badaude errepikatzen diren zenbait ezaugarri, baina horiek ez dira berberak izaten erabiltzaile guztietan. Normalean, asko sufritutako pertsonak izaten dira, momenturen batean testuinguruak baldintzatuta ohitura txarrak hartu zituztenak... Hala ere, ez dago patroi bat zera esateko: 'Pertsona honek drogen mendeko izaten amaituko du'. Badago oso inguru gatazkatsuetan jaiotzen den jendea eta sekula drogarik probatzen ez duena".

Norberaren bizitzako gorabeherak gorabehera, droga mendekotasunaren sareetan harrapatuta amaitzen du zenbaitek. Arrazoi bat ala beste izan horretarako bultzatzailea, guztiek antzeko bizipenak izaten dituzte. Hala ondorioztatu du Arregik urteotan ikusitakoa aintzat hartuta: "Dibertitzeko hasten dira kontsumitzen, eta gaizki ez sentitzeko kontsumitzen dute gero. Droga mendekotasunak zerikusi handia du emozioen kudeaketarekin. Azkenean, kontsumitzea ihes egiteko modu bat da; minari ihes egiteko hartzen dira drogak. Sufritzeari uzteko modu bat da, baina kontua da irtetea oso zaila den zurrumbilo batean sartzen direla, eta gozamen iturri zen horrekin sufritu egiten dutela".





Lasaoko zentroan aterpe hartuta dauden bi pertsonak beren esperientzia azaldu dute. Egondia “gogorra” egiten ari zaien arren, “oso lagungarria” izaten ari dela nabarmendu dute.

"Kolpera laga nuen heroina, eta oso gaizki pasatu nuen"

30 urteko gizona.

"Iazko otsailean hasi nintzen Gizakia Helburu programan. Drogetan oso sartuta nengoen, heroinarekin arazoak neuzkan, eta gaizki nengoen: familiarekin gaizki, lagunekin gaizki, neure buruarekin gaizki. Laguntza eskatzea erabaki nuen. Lehenik, lau hilabete egin nituen Donostian, harrera fasean, eta gero etorri nintzen Lasaora; sei hilabete eta erdi daramatzat hemen. Oso ondo sentitzen naiz, sekulako aldaketa egin dut; familia berreskuratu dut, eta neska laguna daukat. Ikusten dut niretzat oso lagungarria izan dela pauso hori eman izana. Hemen egotea pixka bat itogarria da batzuetan, baina babestuta sentitzen naiz. Hemengo kideok ondo ulertzen dugu elkar.

Hasiera zaila izan zen. Bizitza guztian lan egin izan dut; lan gogorrak izan ditut. Baina azkeneko hiru-lau urteetan ez dut ezer egin, droga trafikatzera dedikatu naiz, maila handietan: pabilioi bat neukan marihuana mordo batekin, kokaina kantitate handiak mugitzen nituen, speed kilo asko... Droga asko mugitzen nuen, eta diru asko ere bai; kontrolik ez izatera iritsi nintzen. Mugarik ez neukan, beti nahi

nuena egiten nuen. Orain, hemen, muga pila bat jartzen dizkigute, eta kostatu egiten da horretara egokitzea. Hemen zera irakasten dizute: besteekin bizitzen, elkar errespetatzen... Lasaora ez zara etortzen droga mendekotasunari aurre egitera bakarrik, hona jarrera hobetzera, jendearekin bizitzen ikastera... etortzen zara. Izan ere, Lasaora etorri aurretik moztan dizute kontsumoa: lehen fasean, ezer hartu gabe egoten zara hiru hilabetez. Nire kasuan, lehen faseari ekin aurretik, San Juan de Dios erietxean egin nituen beste lau hilabete. Nik hona ezingo nukeen etorri hasieran nengoen bezala: bidali egingo ninduten. Neurean sartuta nengoen, oso tirano, ez nuen besteek esandakoa onartzen...

Ondo pasatzeko hasi nintzen kontsumitzen. Urte askotan egon naiz kontsumo kontrolatu bat egiten, kontrolaezina bilakatu zen arte. Diru pila bat mugitzen nuen, eta egunean, bost, sei edo zazpi gramo kokaina eta beste bi edo hiru heroina kontsumitzen nituen. Heroina erre egiten nuen. Heroinaren eraginak oso fisikoak dira, eta lagatzeko garaian oso gaizki pasatzen duzu. Nik ez nuen



metadona tratamendurik izan; kolpera laga nuen. Eta gaizki pasatu nuen. Lehen bi edo hiru aste oso gaizki egon nintzen, penagarri: hotzikarak sentitzen nituen, botaka egiten nuen, pixka eta kaka gaineane... Oso gaizki.

Heroinarekin arazoak izan ditudanean jo dut hondoa, baina horren aurretik, dauden eta ez dauden droga guztiak probatu nituen. Heroina bueltatzen ari da berriz. Erre egiten da orain, baina gauza bera da zainetik sartzea edo erretzea. Droga bera da, eta kalte berbera eragiten du.

Hemen barrura begiratzen irakasten dizute. Nahiz eta guk askotan ondokoari errua bota, norberak

gauzak nola hartzen dituen da kontua. Norberak egin behar du lanketa bere buruarekin. Egia esan, nahiko erraz ari naiz egiten prozesua. Hala ere, pixka bat nekatzen ari naiz, hainbeste terapiarekin eta. Baina egingo dugu.

Bost hilabete falta zaizkit bergizarteratze faserako. Hemendik ateratzean, ikasi egingo dudala erabaki dut. 16 urterekin lanean hasi nintzen, eta ez daukat eskola graduaturik. Hemen ari naiz ziurtagiri hori ateratzen, eta gero, unibertsitateko ikasketak egitea nahiko nuke. Oraindik ez dakit zer ikasiko dudan, baina lan bat aurkitu nahiko nuke. Ilusio hori daukat".

“Etxeko argia ordaintzea baino nahiago nuen kokaina hartzea”

41 urteko gizona.

"Duela urtebete hasi nintzen Gizakia Helburu programan. Arrantzan egiten nuen lan, eta itsasoan nengoenean ondo egon arren, lehorrera etortzean, galdu egiten nintzen. Etxera ez nintzen azaldu ere egiten; besterik ez nuen egiten: kontsumitu eta kontsumitu. Kokaina kontsumitzen nuen, alkoholik-eta ez, kokaina bakarrik. Kokaina eta kokaina. Gero, lanorduetan huts egiten hasi nintzen, itsasora ez azaltzen, eta nagusiak zera esan zidan: 'Zerbait egin beharra daukak, ez hago ondo eta'. Han eta hemen

zorrak agertzen hasi ziren, denak atzetik nituen, eta hondamendi bat bilakatu zen nire bizitza. Zerbait egin beharra nuela ohartu nintzen.

Gizakia Helburu programara laguntza eske joan nintzen, bakar-bakarrik; izan ere, familia guztia haserretuta neukan. Eta normala da haserretzea; horrela laguntzen dizute, ze kasu egiten badizute, ez duzu sekula pausoa ematen. Nik horrela sentitu dut behintzat, niri horrela lagundu didatela, ateak itxita. Bestela ez nintzatekeen espabilatuko. Lagunak ere

denak galdu nituen. Eta bakar-bakarrik agertu nintzen programara, zisko eginda. Gaizki e, ja burua ere erdi nahastuta neukan; gaizki nengoen.

Hilabete hauetan sekulako hobekuntza egin dut. Kirola egiten hasi naiz, Behobia-Donostia egin dut, eta animatuta nago. Kirolak asko laguntzen dit; lehen ere egiten nuen. Baina, gero, irteerarik ez zeukan zurrumbilo batean sartu nintzen. Ez nekien egun bat bera ere kontsumitu gabe egoten. Etxeko argia ordaintzea baino nahiago nuen kokaina hartzea, eta gero, argi gabe egoten nintzen etxean. Pixkanaka, zorrek gain hartu zidaten: itsasoan diru pila bat irabazi eta dena gastatzen nuen; Ogasunari ez nion ordaintzen, eta ia etxea kendu zidaten... Horrek ez zidan bizitzen uzten, eta dena ahazteko, gehiago kontsumitzen nuen.

Niri kostatu egin zait Lasako zentrora egokitzea. Beti egin izan dut lana, etxe bat ordaindu dut... Erabakiak beti hartu izan ditut neure kabuz, eta hona etortzean, muga pila batekin egin dut topo. Oso gogorra egiten zait hori, baina ari naiz egokitzen. Uste dut kasu egin behar zaiela hemengo langileei, nire onagatik ari dira eta. Dena den, oraindik egun txarrak izaten ditut, askotan egoten naiz triste.

Beharakada bat ere izan nuen prozesuan. Lasaura iristean, sekulako gogoa izaten nuen kontsumitzeko, eta egun batean, zentrotik ihes egin nuen. Lau egun eman nituen kokaina hartzen, baina berehala konturatu nintzen ez nintzela ari ondo. Berriro itzuli nintzen zentrora.

Gauza bat asko lantzen dugu hemen. Gu ohituta gaude gaizki gaudenean beti besteei errua botatzera: 'Hark hori egin dit, beste hark beste hura...'. Ni horrela etorri nintzen hona, kanpora begira. Baina, azkenean, gure baitan dago arazoa. Barrura begiratze hori egin zait gogorra. Orain ari naiz buelta ematen. Anaiarekin hiru urtez egon naiz hitz egin gabe, beste anaiarekin beste bi urtez... Azkenean, esaten duzu: 'Ni nauk-eta arazoa'.

Aurrez ere egin nuen mendekotasunari aurre egiteko prozesu bat, Agipad programarekin, 29 urte nituela. Baina orduan hondoa jo gabe nengoen oraindik. Orduan pentsatzen nuen: 'Programa amaitzean noizean behin kontsumituko dut, eta...'.

Nik ez dakit gauzei mugak jartzen, kirolarekin ere gertatzen zait hori. Agipaden programa bukatzean, mendi maratobietan, triatloietan... hasi nintzen. Zerbait gustatzen zaidanean horretaz abusatzeke joera daukat. Drogekin ere, hala zen: niri poltsa txiki bat alferrik ez eman, kantitate handiak nahi izaten

nituen beti. Nire izaeraren parte da zerbait gustatu eta gehiegikeriara jotzea, eta oreka bilatu behar dut, denean. Hori ari naiz lantzen hemen. Baina zaila da norbere barruko kontuak lantzea.

Terapeuta batek behin galdetu zidan: 'Zer gertatzen zaizu?'. Eta nik esan nion: 'Drogekin oso engantxatuta nagoela'. Zera erantzun zidan: 'Zu ez zaude drogekin engantxatuta. Zuk arazo emozionalen bat daukazu, eta droga erabiltzen duzu hori estaltzeko'.

Hemendik irtetean, ez dut arrantzara itzuli nahi. Beste bizimodu bat eraiki nahi dut. Lasaiago bizi nahi dut, obsesiorik gabe, eta galdu ditudan denekin gozatu, oraintxe hasi bainaiz familia eta lagunak berreskuratzen. Mendi buelta batzuk egin nahiko nituzke, eta nahiko nuke jendeari laguntzeko zerbait

"HAN ETA HEMEN ZORRAK AGERTZEN HASI ZIREN, ETA HONDAMENDI BAT BILAKATU ZEN NIRE BIZITZA"

"LASAI BIZI NAHI DUT, BESTERIK EZ. ETA DISFRUTATU. LORTUKO DUDAN ESPERANTZA DAUKAT"

egiten hastea ere; ez dakit Gobernu Kanpoko Erakunde batean, Gurutze Gorrian... Izan ere, besteei laguntzeak niri ere lagundu egiten dit. Lasai bizi nahi dut, besterik ez. Eta disfrutatu. Lortuko dudan esperantza daukat.

Gazteei esan nahi diet kontuz ibiltzeko, kontsumoa kontrolatzetik ez kontrolatzera salto txikia dagoelako. Ni ere dibertitzeko hasi nintzen; hemen gauden denok horrela hasi ginen. Mendekotasunean erortzen diren asko izaten dira txikitan gauza txar asko ikusitakoak, baina ni familia normal batekoa naiz, gurasoek beti ondo tratatu naute, dena eman didate... Eta begira nola bukatu dudana. Edozein eror daiteke". ■■■

GUKA



LEIRE VENTAS ETA MIKEL AIESTARAN

**BIZIBIDEA
BAINO GEHIAGO**



Euskararen plaza gara,
herriaren irudia eta
komunitatearen ahotsa



**HEDABIDEKIN
ERE BAI**

ANEKDOTIKOA



JULENE FRANTZESENA

11:15ean jarri genuen hitzordua Enparan kalean. Zain geunden, ni pixka bat urduri, Leire han zelako eta Mikel ez zelako ageri. Baina agertu zen; ordurako Twitter bidez abisatuta zegoen 11:30erako iritsiko zela. Aurreko egunetan bero pixka bat eman nion sentipena nuen: konfirmatzeko behin baino gehiagotan idatzi nion, eta berak ere sumatu zuen, nolabait, nire urduritasuna, gauzak azkar ixteko izaten dudana presa. “No, konfiantza handirik ez dizut eman, e”, esan zidan, gutxi gorabehera—ez naiz hitzez hitz gogoratzen—, barre artean, elkartu orduko.

Sartu ginen Basazabalera; bi elkarriketatuak han sekula izan gabeak ziren. Harrituta gelditu zirela uste dut eraikinarekin. Kanpora atera ginen, Zelai Luze aldeko pasealekuaren ondoko terrazara. Hiru aulki huts, eta Julen Imaz eta Maialen Etxaniz lankideak kameran atzean. Eseri ginen, eta handik pasatzen ziren herritar gehienek begiratzen zuten, zer suman, zertan ari ote ginen jakin minez. Mikeli zerbaite esateko ere aprobetxatu zuen batek edo bestek. Horixe du aurpegi ezaguna izateak.

Horiek elkarriketaren eguneko bi anekdotatxo baino ez dira, protagonistekin zer ikusia dutenak. Hara joaterako ere izan nituen, baina, beste bi pasadizo. Goizean lagun bati antigeno testa eman nion, Azpeitiko farmazietan ez zegoelako halakorik, denak gastatuta zeudelako. Eman nion portalean testa, eta handik alde egin eta bost minuturako Whatsapp: “Positibo”. Eta lepo gaineko makina lanean: “Noiz egon nintzen azkenengoz harekin”, “orain elkarriketa daukat; beno aire zabalean da behinipein”, “orain egon zaite, bada, hamar egun etxean”... Berdin dio zertan ari zaren, zeharka bada ere, beti agertzen da koronabirusa.

Beste anekdota bat da; ez gehiago, ez gutxiago. Aiestaranen eta Ventasen elkarriketa idatzi eta txukuntzen ari nintzela gertatua. Behin baino gehiagotan aipatu zituzten elkarriketan “korrespontsal” eta “bidali berezi” hitzak. Korrespontsal banekien berriemala zela eus-

Ez naiz kameraren aurrean elkarriketak egiteko zalea, baina azken esperientzia anekdotikoa izan da

karaz, baina bidali berezi? Zer da bidali berezi? Askotan egiten dudana gisan, Berria.eus-en begiratu nuen “bidali bezeri” sekula erabilitakoak ote ziren, eta hala bazen, aurrera; Berrian nola, GUKAn hala.

Nire harridurarako, baina, Andoni Egaña bertsolariak 2018an idatzitako Berezia artikuluekin egin nuen topo. Garbi zioen hark: “‘Bidali berezia’ esamoldea ez zait inoiz belarrietara gozo sartu. Egia da propio bidalitako berriemala batzuk aski berezi izan daitezkeela, baina hortik guztiei hala deitzera badago tartea. Nahiago nuke ‘propio bidalitakoa’ erabiliko balute”. Tapa; adjudikatuta.

Kontua da elkarriketa batzuek paperean gelditzen dena baino gehiago ematen dutela, eta horietako bat izan zen Basazabalakoa. Bi pertsona interesgarri, eta haien diskurtsoa ere halakoxea. Aitortuko dizuet: ez naiz kameraren aurrean elkarriketak egiteko zalea, baina azken esperientzia anekdotikoa izan da; izan ere, sekula ez bezain lasai sentitu nintzen solasaldian. Agian, horregatik izango ditut gogoan elkarriketaren bueltako hainbeste anekdota. ■

MUNDUA BIZIMODU

Leire Ventas eta Mikel Aiestaran

Nazioarteko kazetaritza. Horixe da Mikel Aiestaranek eta Leire Ventasek duten ofizioa, bakoitzak modu batean, bakoitzak beretik. Biek ala biek argi dute kazetaritza bizimodua dela, eta kazetaritzan bakoitzak egindako ibilbideaz, kazetaritzaren funtsaz nahiz gorabeheraz aritu dira hizketan, luze.

Testua: **Julene Frantzesena**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Batak urteak daramatza Jerusalemen bizitzen, eta besteak, Londresen. Batak freelance gisa egiten du lan Ekialde Hurbiletik, eta besteak BBCn, hedabide horren Mundua Latinoamerikarako zerbitzuan. Gabonetako oporraldian Azpeitian elkartu ditu GUKA gehigarriak Mikel Aiestaran (Beasain, 1975) eta Leire Ventas (Zarautz, 1981) kazetariak, Basazabal jauregiaren atarian. Etxera itzulitakoan sentitzen den abaroan, eguneroko jardunetik begirada jasota hitz egin dute beren lanaz, pasioaz, bizimoduaz. Elkar ezagutzen ez zuten bi pertsona izanagatik, bakoitza beretik, bere esperientziatik, lasai eta patxadaz aritu dira solasean, aurrez elkar ezagutu izan balute bezala.

Galdera zabal samarra, baina zuen egunerokoari lotutakoa. Zer da kazetaritza zuentzat?

Mikel Aiestaran: Bizimodu bat da kazetaritza niretzat, baina ez niretzat bakarrik; familia osoarentzat ere bai. Jerusalem-era joateko erabakia hartu genuenetik, etxea nire erre-dakzio bihurtu da, eta nire lankideak dira Telmo semea, Ane alaba eta Aloña emaztea. Nire bulegoa logelan dago, zuzenekoak egiteko kokalekua balkoian daukat, editatzeko aretoa ere egongelatik oso gertu dut... Bizimodu bat bilakatu da kazetaritza, eta familia osoak parte hartzen du bizimodu horretan; dagoeneko sei urte pasatu dira hara joan ginenetik. Esperientzia hau izan ondoren, ez dut uste Ane eta Telmo etorkizunean kazetariak izango direnik, baina oso polita eta aberasgarria izan da bizi izan duguna. Kazetaritzak horixe eman dit niri, beste bizimodu bat izateko aukera.



Leire Ventas: Bizimodu bat da, eta munduko ogibiderik onena ere bai. Guri ere txoko desberdinak ezagutzeko aukera eman digu kazetaritzak. Era berean, mundua era batera ezagutzeko eta mundua azaltzeko bide bat ere bada kazetaritza. Beste dimentsio bat ere badauka: botereari neurria hartzekoa.

Urteak daramatzazue ogibide horretan lanean: hedabide batean eta bestean arituak zarete, nazioartera jauzi egiterako. Hasi zinetenetik hona, kazetaritza zertan aldatu dela esango zenukete?

L.V.: Goitik behera aldatu da kazetaritza egiteko modua. Baina kazetaritza bera aldatu da eta ez da aldatu; izan ere, oinarria ez da aldatu, oinarria berbera da. Mundua azaltzeko bidea izaten jarraitzen du kazetaritzak, baina formatuak aldatu dira, bideak ere bai. Duela hamabost urte lan egiten nuen erredakzioan pertsona bat zegoen webguneko lanetarako; papererako egiten zena webgunean sartzen zuen kazetari hark. Hori gaur egun pentsaezina da. Webguneak izaera propioa du, paperak ere bai, sare sozialek berena... Audientzia desberdinak daude, eta zentzu horretan, kazetariok pixka bat orkestra gizon eta emakume bihurtu gara. Hizkuntza desberdinak menderatzen ikasi behar izan dugu, askotariko audientziak buruan izaten eta abar. Kazetaritzaren funtsa, baina, lehengo bera dela uste dut.

M.A.: Dena aldatu da, bizimoduak ere bai. Informazioa kontsumitzeko modua aldatu egin da, eta horren atzean gaude gu. Izan ere, ohiturak aldatzen baldin badira, gure lanbidea ere aldatu egingo da. Dena den, egia da kazetaritza funtsean ez dela aldatu. Azpeititik, Londrestik edo Jerusalemek lan egin, gauza bera da kazetaritza. Jazo den aldaketa garrantzitsuena teknologiarik lotutakoa izan da, eta horrek irudiaren demokratizazioa ekarri du; gaur egun, eskuko telefono batekin edonork izan daiteke kamerari. Hori ikusi dut Afganistanen edo Iraken; gero eta kamerari gutxiago joaten dira leku horietara, baina edozein bazterretan dago kale kazetaritza edo kazetaritza lokala. Pertsona batek telefono batekin irudiak lortzeko aukera du, eta guk irudi horiek ikusten ditugu etxetik; hori pentsaezina zen lehen.

Aldaketa nagusia, alde batetik, teknologia tarteko etorri da, eta bestaldekik, azkartasunari lotuta ere bai. Dena oso azkarra da orain; lehen ez zegoen arazorik gai bati hilabeteko jarraipena egiteko, patxadaz, gaiak landuz... Gaur egun, ez; gaur egun gai batek lau edo bost egun irauteko...

Izugarria izan behar du gertatzen ari denak, ezta?

M.A.: Bai, ikusi dugu Afganistanekin zer gertatu zen udan, adibidez. Zergatik izan zuen halako oihartzuna? Sekulako albistea zelako, baina baita uda zelako, futbolik ez zegoelako, bizitza politikoa geldirik zegoelako eta koronabirusaren pandemia pixka bat amaituta zegoela zirudielako ere. Hori bai, nazioarteko albistea izateko, sekulako oihartzuna izan zuen; hiruzpalau astez egon zen punta-puntan. Orain, baina, zer? Hartu edozein egunkari edo piztu telebista, eta Afganistan ez da ezer esaten. Nazioarteko albisteekin hori gertatzen da normalean: bi-hiru egunetan sekulako oihartzuna izaten dute, baina gero berehala isiltzen dira.

Zuk Leire BBCren Mundua zerbitzuan egiten duzu lan, Latinoamerikarako. Halakorik bizi izan al duzu?

L.V.: Bai. Guk nazioarteko gaiak lantzen ditugu Latinoamerikarako, ez ditugu soilik Latinoamerikako gaiak lantzen. Agenda eta askotariko gaiak -zientzia, osasuna, teknologia, ekonomia...- lantzen ditugu ikus-entzuleak Latinoamerikan daudela pentsatuta eta audientzia horrek zer interes duen kontuan hartuta. Afganistanen gertaturikoa izugarria izan zen guretzat ere. Aste hartan berrogei mila angelu pentsatu genituen albistea lantzeko. Gero, noski, tokian tokiko albisteek ere ematen digute gaiak lantzeko aukera: Txileko hauteskundeak, adibidez, oso interesgarriak izan ziren. Bi muturretako hautagaiak ziren lehian, azken unera arte ez zen argi zeinek irabaziko zuen eta denbora asko igaro genuen gai hori prestatzen. Eraitza ere ona izan zen; interes handia izan zuen. Angelua aipatu dut lehen; izan ere, guk ez ditugu albiste hutsak ematen. Angeluak pentsatzen ditugu: oinarritzko galderak zein diren, audientziak zer



Leire Ventas.

"Mundua era batera ezagutzeko eta mundua azaltzeko bide bat da kazetaritza"

"Herri aldizkarietan aritu garenok badakigu zer den baliabide gutxiarekin lan egitea"

"Errutinak badira, baina inoiz ez dakizu hurrengo egunean zer tokatuko den"

jakin nahi duen... Horrela lantzen ditugu albisteak.

Gaur egun, nazioartean ari zarete lanean, nazioarteko kontuez. Asko kostatu al zitzai-zuen sorterrria utzi eta fokua aldatzea?

M.A.: Niri, ez. Hastapenetan erredakzio batean aritu nintzen lanean Donostian, baina hura utzi nuenez geroztik, hamar urte igaro nituen motxilarekin herrialdez herrialde, propio bidalitako kazetari bezala. Hori horrela izanik, hurrengo urrats naturala zen berriemaile lanetan aritzea. Beraz, niretzat ez zen erabaki traumatikoa izan; aldaketa handiena izan zen etxeko denok joan ginela Jerusalemara bizitzera. Izan ere, oso desberdina da bakarrik edo familiarekin egotea. Lan aldetik, asko irabazi dut Jerusalemen: patxada, denbora, ikasteko aukera... Motxilarekin leku batetik bestera zabiltzala, oso polita da bizi duzuna, sekulako oihartzuna duelako egiten duzun lanak; izan ere, gaur Iraken zaude, bihar Afganistanen, gero Pakistanen... Puntu bero batetik bestera mugitzen zara, eta beti potoloak dira albisteak. Baina orain ez, oraingo lana desberdina da:

lasaiagoa. Asko irabazi dut; denbora bereziki, eta familia.

L.V.: Ni sorterritik joaterako, etorri egin nintzen sorterrira. Kazetaritza ibilbidea ez nuen hasi Euskal Herrian. Ikasten ari nintzela, Zarauzko *Txaparro* herri aldizkarian egin nuen lan pixka bat, baina gero, El Salvadorko egunkari batean hasi nuen bidea. Handik Mexikora joan nintzen, eta gero itzuli nintzen Euskal Herrira. Tarte horretan, *Berrian* aritu nintzen lehenik, eta *Urola Kostako Hitzan* gero, eta ondoren egin nuen salto Londresera. Traumatikoa ez da izan, egindako ibilbideak badu niretzat zentzua; izan ere, Latinoamerikan hasi nuen bidea eta orain Londrestik Latinoamerikarako egiten dut lan. Bestalde, Mikelen eta nire lana oso desberdinak dira: Mikelek gertaeraren lekutik egiten du lan, eta nik erredakzio batetik. Gainera, azken urteetan editore lanetan ari naiz: sortzen edo idazten baino, erabakiak hartzen laguntzen, eguneko plana egiten, zuzentzen eta editatzen aritzen naiz. Itzaleko lana da pixka bat nirea.

Nazioarteko kazetaritzan aritu zareten urteetan, zer ikasi duzue?

M.A.: Sekulako aldaketa izan dela azken urteetan. Orain, 46 urterekin bilaka zaitezke erreferente bat, baina lehen ezinezkoa zen hori. Nik oraindik erreferenteak behar ditut, baina lan egiteko modua aldatu egin da; enpresek beste interes batzuk dituzte eta erre-tiro masiboak izaten dira orain. Normalean, hedabideak seniorrek betetzen dituzten postuak kentzen hasten dira, eta hori asko nabaritu da Ekialde Hurbilean; ni han seniorra naiz jada. Inguruan ditudan kazetariekin alderatuta, zaharrena naiz, eta oso tristea da hori; nik erreferenteak behar ditut oraindik ere.

L.V.: Hori egia da, baina aldi berean, belau-naldi gazteengandik asko ikasten dugu. Izan ere, horiek Interneteko natiboak dira, sare sozialetakoak, gureak ez ziren kazetaritza egiteko beste modu batzuk erakutsi dizkigute modu naturalean... Alde horretatik, seniorrak gara, baina badiugu beste erreferente batzuk. Nik, batez ere, kazetaritza zerbitzu publikoa dela ikasi dut; hau da, jendearentzat dela. Pandemian oso garbi ikusi da hori, birusari

buruzko albisteak ematerakoan. Berebiziko garrantzia dauka kontatzen duzun hori ondo kontrastatzeak, iturri zuzenak bilatzeak, kontrakoak entzuteak, egiaztatzeak... Horrek guztiak berebiziko garrantzia du, eta hori da azken urteetan ikasi dudana.

Zuk, Leire, hedabide batentzat egiten duzu lan, Erresuma Batuan instituzio bat den hedabide batentzat. Zer da BBCn lan egitea?

L.V.: BBC munduko herrialde guztietan dagoen makinaria erraldoi bat da. Makinaria horrek informazio pila bat sortzen du, leku askotara iristen da, berriemaile sare ikaragarria dauka, baliabide asko ditu... Herri aldizkarietan edo egunkarietan lan egin dugunok badakigu zer den baliabide gutxiarekin lan egitea. BBCren kasuan, kontatzeko istorio onak baldin badi-tuzu, hori lantzeko baliabideak egon egongo dira. Bestalde, BBCk kazetaritzaren urrezko arauak gogor mantentzen ditu: inpartzialtasu-na da guztiaren zutabea; kazetari guztiak horretarako formatzen dituzte, eta hori behin eta berriz errepikatzen dute.

Mikel, zuk, berriz, urteak daramatzazu he-dabide baterako zein besterako lanean, freelance moduan. Nolakoa da freelance gisa lan egitea? Zer alde on eta txar ditu?

M.A.: Izenak dioen gisan, *free* [libre, ingelesez] naiz; libre naiz erabakiak hartzeko. Adibidez, inork ez dit esaten zenbat denbora egon behar dudan Azpeitian. Zuk kudeatzen duzu zure lana, eta hori da alde politena eta aberasga-riena; hori oso inportantea da. Alde txarrik ez diot oraindik topatu freelance lanari. Egu-nen batean topatuko diot, baina orain arte oso positiboa izan da esperientzia. Dena den, baldintzak aldatzen joan dira. Gaur egun ez ditugu lehengo baldintzak, baina momentuz, ezin dut gauza txarrik esan; oso pozik nago. Egunen batean BBCtik deitzen badidate, ordea, zergatik ez naiz joango? Agian pentsatu egin-go dut, eta beharbada, askatasun hori alde batera utziko dut. Azkenean, erabaki pertso-nala da; aukerak izan ditut beste era batera lan egiteko, baina ez zait interesatu. Dena den, etorkizunean, agian, nahiko dut. Freelancea figura bat da, finean; kazetaritzan aritzen den langile autonomo bat naiz, beste autonomo



Mikel Aiestaran.

"Egunen batean topatuko diot, baina orain ez diot alde txarrik aurkitu freelance lanari"

"Sare sozialetan sinesgarritasuna irabaztea oso zaila da, baina berehala gal daiteke"

"Lan bizia da gurea, askotan ez zait iruditzen lanean ari naizenik, eta sentipen hori oso ederra da"

guztiak bezalaxe. Egia dena da beti dagoela segurtasun falta, baina gaur egun, enpresa batean edozein kontratu mota izanda ere, egonkortasuna ez dago bermatuta. Aitzakia handiena horixe da nire kasuan, egonkortasuna, baina ni oso pozik nago lortu ditudan bezeroekin, bai EITBrekin, bai Vocento taldearekin. Azken ia 20 urte daramatzat horiekin lanean, eta ez dut kexarik.

Duela hilabete batzuk biral egin zen, Leire, BBCrako euskarari buruz egin zenuen erreportaje baten bideoa. Nola hartu zenuen halako oihartzuna izatea?

L.V.: Guztiz harrigarria izan zen. Itzaletako lanetan ari naiz normalean, eta ez nintzen aurpegi publikoa. Gainera, ez naiz Mikel bezain aktiboa sare sozialetan. Bat-batean bideo hura biral egitea harrigarria izan zen, batez ere, BBCk euskarari buruz egindako lan bat zelako. Euskal herritarrentzat ezaguna den gai bati buruzko bideo bat Euskal Herrira iristea eta hainbeste zabaltzea... Denok harritu ginen, baina gustura sentitu nintzen BBCn nire herriaz hitz egiten; ez dago gaizki.



Zu, berriz, Mikel, aurpegi ezaguna zara. Nola daramazu jendeak ezagutzearen kontua?

M.A.: Gauza bat da futbolearen aurpegi ezaguna izatea, baina gure lanbidea oso-oso pijoa da, ez da sektore masiboa; nazioarteko kazetaritza oso selektiboa da.

L.V.: Nitxo bat dela esango nuke.

M.A.: Bai, hori da. Dena den, etxera itzultzen naizenean ikusten dudana erantzuna, jendeak gaiak nola jarraitzen dituen, zer galdere egiten dituen... harrigarria da niretzat. Ez dakit beste leku batzuetan hala izango den, baina Euskal Herrian nazioarteko gaiekiko interesa sumatzen dut; bereziki, Palestinaren eta Israelen arteko gatazka oso mediatikoa delako, edo zelako, eta denok daukagulako iritzi bat. Jendea asko inplikutzen da. Horren

erakusle da EITBk berriemaile sare bat mantentzea gaur egun. Hori oso arraroa da, Espainiako Estatuko hedabideekin alderatuz gero. Izan ere, gero eta gutxiago gara nazioarteko berriemaileak. Murrizketak egiten, normalean, kanpotik hasten dira, eta gu kanpo-kanpoan gaude. Horregatik, oso-oso bitxia iruditzen zait Euskal Herrian jendeak ematen duen erantzuna ikustea eta ni nazioartean lan egiteagatik ezaguna izatea. Jendea beti errespetuz aritu izan zait hizketan, gainera; ez dut sekula bizi izan esperientzia desatseginik.

Zein da nazioarteko kazetaritzan daramatzazuen urteetan bizi izan duzuen unerik gogorrena? Eta positiboki gogoangarriena?

M.A.: Une gogorak, pertsonalki, muturreko egoeretan bizitakoak izan dira. Iraken edo Sirian, adibidez, beldur izugarria pasatu dut. Normalean, bizitakoaz konturatzen zarenean edo bizitakoa atzean uzten duzunean, pixka bat erlatibizatu egiten duzu, eta beste kontu batekin hasten zara. Baina muturreko egoera batean, bonbardaketa edo tiroketa batean bizitzen duzuna... Barruan zaudenean ez zara konturatzen gertatzen ari denaz, baina denbora pasatzen denean, zera pentsatzen duzu: "A zer nolako eskapada egin dudana". Bestelakoan, oso gogorak izan dira pandemiaren urteak. Niri, normalean, etxetik deitzen didate kezkatuta. Baina pandemia garaian, gu egon gara Euskal Herriarekin kezkatuta Israelen. Izan ere, gu Israelek sortutako kaiolaren barruan sartuta egon gara pandemian, eta txertoak hartzen ari ginen garaian, Euskal Herrian ez zegoen maskararik ere. Oso une arraroa eta zaila izan zen; zuek gaizki pasatzen eta gu zuei begira. Une onak, berriz, bizitako gehienak izan dira. Lan bizia da gurea, eta askotan ez zait iruditzen lanean ari naizenik; sentipen hori oso ederra da. Egunkariko lanak utzi nituenean, pertsona batek esan zidan egunero akordatuko nintzela 16:00etan, egunkaria inprentara sartzen zen garaian. Baina ordutik, sekula ez diot erlojuari begiratu 16:00etan; beste txip bat daukat. Egia esan,

egunero bizitako momentuak, istorio desberdinak, bihar zer egingo dudan ez jakitea, datorren astean zer gai aterako den ez jakitea... Hori asko gustatzen zait.

L.V.: Hori da gure lanbidearen alde politetako bat. Errutinak badira, baina inoiz ez dakizu hurrengo egunean zer tokatuko den. Plan bat izan dezakezu, baina Afganistanen gertatu zena gertatzen bada, dena hankaz gora jartzen da. Harra piztuta izaten duzu, eta erreakzionatzeko gaitasuna izan behar da.

Eta beti ikasten aritzekoa, ezta?

L.V.: Bai, bai, eta beti ikasten ari gara. Plataforma berriak, hizkuntzak...

Azken urteetan sare sozialek indar izugarria hartu dute: horietan zaude edo ez zara existitzen kasik. Bada eztabaida bat, ordea, sare sozialetako fake newsei, gezurrei, zaratari... buruzkoa. Kazetariaren lana zein da zurrumbilo horretan?

M.A.: Niretzat lan tresna izugarria dira sare sozialak. Gaur egun Twitter gabe... Niretzat lanaren parte da Twitterren egunean ordu-bete edo bi ordu igarotzea. Noski, komunikabide tradizionaletan bezalaxe, zabor asko dago hor ere. Esan nahi dudana da gaur egun egunkarietan zabor edo gustatzen ez zaidan informazio asko ikusten dudala. Sare sozialak desmitifikatu egin behar dira; niretzat sare sozialak lanerako tresna ez ezik, egindako lana erakusteko tresna ere bilakatu dira. BBC atzean izanda, adibidez, sare bat edo mugimendu bat duzu zure lanak erakusteko. Baina ni bakarrik nago, freelancea naiz, eta oso interesgarria da lanak mugitzeko sare sozialak izatea. Hori bai, kontuz eta ondo egin beharreko lana da sare sozialetakoa; izan ere, sinesgarritasuna irabaztea oso zaila da, baina berehala gal daiteke. Horregatik diot lan tresna bezala hartu behar direla. Oporretan nagoenean, adibidez, Twitter ez dut ukitzen; begiratzen dut tartean behin, baina listo. Guk lantzen ditugun gaiak martetarrak dira: sunien eta xiiten gatazkari buruzko txioak idatzita baino askoz ere jarraitzaile gehiago izango nituzke Realari eta Athletici buruz idatziko banu. Nitxo espezializatuak egin behar dira, landu egin behar dira horiek, eta niri gustatzen



zait jarraitzaileen hazkundea izatea, baina hazkunde horizontala izan dadila, komunitate interesgarri bat sortzeko.

Zeuk ere informazioa jasotzeko komunitate bat izan dadila, ezta?

M.A.: Hori da. Niri ez zait interesatzen hazkunde ikaragarria izatea, bertikala, taldean zein dagoen jakin gabe. Zentzu horretan oso gustura nago Twitterrekin. Facebookera ez dut hainbeste jotzen, nahiz eta Ekialde Hurbilean ikaragarri erabiltzen den: lanerako, elkarrizketak eskatzeko, baimenak lortzeko... Azkenaldian, ikaragarria izan da, bestalde, Whatsapparen bilakaera. Afganistanera joatean, talibanen baimena Whasappez jaso nuen. Ez zegoen telefono finkorik, baina Whasappa bazuten; hori ez sinestekoa izan zen niretzat.

L.V.: Saihestezina da sare sozialetan egotea, egon egin behar da horietan. BBC makinaria handia da, baina sare sozialetan egon egin behar du kazetariak. Gainera, audientzia neurtzeko modu bat ere badira; audientziak zer nahi duen ikusteko sare sozialetan egon egin behar duzu. Twitter modu batekoa da, Instagram beste batekoa, eta Youtube ere hor dago bere audientziarekin.

M.A.: Youtube masiboa da. Milioika lagun daude han.

L.V.: Bai, milioika lagunengana irits gaitezke Youtuberaren bidez, baina BBCn ez dugu Youtuberako informazioa lantzen. Harako azalpen bideoak egiten ditugu, oso ondo funtzionatzen dutelako. Adibidez, zein dira omikronen sintomak? Kazetari bat azalpenak ematen ageri da bideoan, birologo baten informazioarekin. Gisa horretakoek funtzionatzen dute Youtuben. Horiek, baina, ez dute ondo funtzionatzen webgunean edo Twitterren, adibidez. Sare sozialak, beraz, audientziarekin komunikatzeko eta audientzia ezagutzeko bidea ere badira. Lehen, kazetaritza norabide batekoa zen: nik kontatuko dizut zuri zer jakin behar duzun. Orain, ez.

M.A.: Bai. Iluntzeko bederatziatan emango dizut informazioa, eta listo. Beti oso formala zen.

L.V.: Orain, berriz, ez. Orain jakin egiten dugu jendeari zer interesatzen zaion, gauza bat edo bestea, eta gu horretara moldatzen gara, jendeak jakin nahi duen horretara, beti ere kontuan izanda kontuz landu eta egiaztatu behar dela informazioa... Kazetaritza ja ez da goitik beherakoa, horizontalagoa da orain, eta herritarrek jaso egiten dute informazioa, entzun egiten dute, eta guk jakin egin dezakegu horiek zer nahi duten.

M.A.: Bai, eta 24 orduz jasotzen da orain informazioa. Lehen hori ez zen horrela: 15:00etan eta 21:00etan izaten ziren albistegiak, eta denak ordu horietan egoten ziren adi. Orain, 24 orduz dago informaziorako aukera, konektatu eta hor daukazu.

Informazioa jasotzeko modua ere zeharo aldatu da: papera, Internet, ikus-entzunezkoak... Nola ikusten duzue etorkizuna?

L.V.: Uste dut horri lotuta badela beste kontu bat ere: hori guztia mantenduko duen negozio eredua zein izango den. Deskubritzeko dago hori.

M.A.: Hedabideen galderarik potoloena horixe da: nola atera dirua aldaketak datozenean. Papereko euskarria desagertzen bada, nondik aterako dute komunikabideek dirua? Niretzat arazo handia dago horrekin; izan ere, orain hedabideetako egoera kudeatzen ari diren berberak ez zuten arazo hori ikusi bere unean. Espainiako egunkarietan antzeko zuzendariak ikusten ditut azken hogeitaz urteetan, eta sektorearen krisi larria etorri zenean ere haiek zeuden postu horietan; oraindik hor jarraitzen dute. Gauzak aldatzen ari dira, baina aurpegiak ez dira aldatzen, eta ez dut uste horrela berpiztuko denik sektorea.

Hainbat hedabidek egin dituzte Interneteko edukiak ordainarazteko saiakerak, baina bere horretan geratu dira... Pixka bat noraezean al dabilta hedabideak diru iturriak lortzeko?

L.V.: Bai, hori da. Ez dago funtzionatu duen eta denok jarraitzeko modukoa den adibide edo eredu bat. Saiatu dira harpidetza bitartez, edukiak itxita, publizitatearekin...

M.A.: Dena oso azkar aldatu da, baina hedabide denak etorriko den horri begira daude.

Azken urteak pandemiak jo ditu goitik behera: urtea hasi berri den honetan, 2022a bukatzerako zer titular eman nahiko zenukete?

L.V.: Pandemia bukatu dela, argi eta garbi.

M.A.: Bai, bai, garbi dago hori. Nik okupazioa amaitu dela ere esan nahiko nuke. Hori albiste oso potoloa litzateke nazioarte mailan. Edo Ameriketako Estatu Batuetako tropak Iraketik atera direla... Baina, dudarik gabe, pandemia da orain gai bakarra.

L.V.: Bai, ez dut dudarik. Mundu guztiari eragin dio eta eragiten dio. Mundu guztiaren bizitzak aldatu ditu pandemiak, jende askorentzat bizimodua gogorra izan da pandemian... Beraz, bukatu dela izango da albiste nagusia, nik titular horren aldeko apustua egiten dut.

M.A.: Amaitu arte, hor egongo da pandemia une oro, eta beste gai guztiak eklipsatuko ditu.



Tartean behin izango dira Afganistangoa bezalako albisteak, baina atzean beti egongo da bitxoa gure zain, eta hori izango da albistea. Ez dut uste 2022an pandemia amaitutzat-amaitutzat emateko aukerarik izango dugunik, baina, dudarik gabe, datozen hilabeteetan ere gai bakarra izango da pandemia gurean.

Ezer berririk ez, ezta, azken bi urte hauek ikusita?

M.A.: Hori da, bai. Beste fase batean sartuko gara, helduko dira aldaera desberdinak, baina... Gainera, gai globala da.

L.V.: Bai, horrek erakutsi du zeinen konektatuta dagoen mundu guztia; ikusi da leku batean

gertatzen denak beste batean zer eragin duen. ■



Ikusi eksklusiban Leire Ventas eta Mikel Aiestarani egindako elkarrizketa QR kodea eskaneatuta.



Desnibela 125 m
Zailtasuna ● ● ● ● ●
Luzera 6 km
Denbora 1 ordu eta 20 minutu

Erreferentziak
0.00 Aratz Erreka auzoa
0.10 Bidegurutzea
0.25 Arlizeta Beherkoa baserria
0.45 Arlizeta baserria (ur jauzia)
1.20 Aratz Erreka auzoa



BARRUKALDEKO ALT XORRAK

MIREIA GALARZA BASTIDA

Urola bailaran dagoeneko jakina da zeintzuk diren herrigune handienak, baita horien inguruan dauden mendiak ere. Hala ere, mapari hauts pixka bat kendu eta bertan aztertu eta sakonduz gero, inguruko auzo txikiekin topo egingo dute eskualdeko herritarrek. Inguru horietako bat da Aratz Erreka, Azpeitiko auzoa. Urrestilatik lau bat kilometrorra dago, eta Azpeititik bederatzi kilometro ingurura.

Ibilbidea Aratz Errekako erdigunean hasten eta amaitzen da, San Isidro eliza dagoen lekuan. Autoa bertan utzi beharko dute herritarrek, eta kontuz-kontuz, Urrestilara doan errepidetik joan, bidegurutze batekin topo egin arte. Ibaia gurutzatuz, eskubira hartu behar da leku horretan, eta baserri zahar bat atzean utzita, aurrera jarraitu behar da ondoren. Bideari segika, eta Gorri ibaiaren paraleloan, Arlizeta Behekoa baserria izango da hurrengo geldialdia. Azkenengoa, berriz, ur jauzi eder bat izango da, hain zuzen, Arlizeta baserriaren ondoan geratzen dena. Itzultzeko bide bera erabili beharko dute mendizaleek, beraz, ez dago galtzeko arriskurik.

Zalantzarik gabe, lasaitasuna da herritarrek Aratz Errekan topatuko duten onena. Halaber, ibilbidea igandeetan egiten dutenek elizaren alboan dagoen jatetxea ere zabalik topatuko dute. Txikia izanda ere, parkea eta frontoia ere badaude Aratz Errekan, beraz, ibilbidea egin

eta etxeko txikienek jolasteko aukera izango dute bertan, planari amaiera eman eta etxera itzuli aurretik.

Motzean

Lau geldialdi

- Aratz Errekako erdigunea
- Bidegurutzea
- Arlizeta Behekoa
- Arlizeta eta ur-jauzia

Nola iritsi

- Autoz: Ez dago Aratz Errekara iristen den autobusik. Aproposena autoz joatea da, edo motoan, herrigunean bertan aparkatzeko aukera baitago. ■



Ikusi esklusiban Xabat Olaizola eta Guillermo Segurola txangoan, QR kodea eskaneatuta.




TELEBISTAN ERE

GUKA!



NON DAGO UZTARRIA?



Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarrria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarrria@gmail.com e-postara otsailaren 18a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.

Urtarrileko Uztarrria aldizkarian Uztarrria pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 29. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Maria Luisa Garate bazkidea izan da irabazlea.



URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

"Inprobisatu egin behar da, emozioa eman nahi badiozu"

JUANJO BEREZIARTUA 'GAZTAÑA' ESATARIA

Azpeitian kirol edo festa ekitaldirik bada, ez da urruti ibiliko Juango Bereziartua 'Gaztaña'-ren ahotsaren oihartzuna. Haren ahotsa bozgorailuetatik entzunez gero, herrian zerbait badenaren seinale. Horrela izan da azken hiru hamarkadetan. Ezustean hasitako bidea bidaia luze bilakatu zaio.

Testua: **Mailo Oiarzabal**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**. Argazkiak: **Utzitakoak**.

Gaztainazabal baserriko semea izanda, errepidearen kontra hazi eta bizi izan zen 27 urtez Juanjo Bereziartua *Gaztaña*, "ezkondu arte". Agian hortik datorkio gurpildun kirolekiko zaletasuna. Moto eta auto lasterketa zale amorratua da, eta txirrindularitza zalea ere bai. Lagun Onak txirrindulari elkartearen urtetan izan zen batzordeko kide, eta horietatik zortzitan txirrindulari gazteen zuzendari lanak ere egin zituen, lau urte kadete mailakoekin eta beste lau jubenilekin. Lagun Artea eskuderiaren bueltan ere urte asko ibilitakoa da, eta haren aurretik, herrian Marruak eskuderia sortu zenean ere, han ibili zen Gaztaña. "Neuk 20 bat urte nituenen sortu zen hura, baina ez zuen urte asko iraun, lau-bost bat besterik ez". Probak jarraitu, zuzenean ikusteko bidaia eta antolatzen-eta lagundu bai, baina auto edo moto lasterketetan inoiz ez du parte hartu izan. "Ez, ez. Horretarako dirurik ez dut eduki. Gustatu bai, baina..."

Moto edota auto lasterketak ikustera, ordea, "asteburuero" joaten zen garai batean, batera eta bestera, emaztearekin eta ume txikiarekin ere bai.

Eta motordunak ez zirenean, bestelakoak: txirrindulari lasterketak ikusteko ere asko mugitutakoa eta mugitzen dena da Gaztainazabalgua. "Zapatuetan, batzuk futbola ikustera joaten dira Garmendipera. Nik gazteen txirrindulari lasterketaren bat baden begiratuko dut, eta arratsalde pasa joango naiz hura ikustera. Txirrindularitza beti gustatu izan zait. Baserri ondoan kaminoa ere bai, eta... Txiki-txikitatik jarraitzen nituen handik ibiltzen zirenak, Elorza eta. Gure aita ere horrelakoxea zen".

Jaramako 'speaker' hura

Motor mundutik iritsi zitzaion, hain zuzen ere, esatari edo *speaker* aritzeko lehen aukera. Aukera baino, halabeharra, eta zirt edo zart egin beharra. Joxe Mari Sagardogi *Lanbritx* moto gidari zenari laguntzeko taldean zebilen Gaztaña, eta espero ez zuela iritsi zitzaion esatari bataioa: "Dirua ateratzeko errifak eta beste zenbait ekintza egiten genituen, Lanbritxi laguntzeko. Horrela, Euskadiko Txapelketako motokros bat antolatu genuen. Federaziokoak etorri ziren, baina lasterketan hitz egingo zuen inor ez zuten ekarri. Lagun talde hartako zaharrena nintzen ni.

GAZTAÑA





Ordurako ezkontuta nengoen, 32 bat urte edukiko nituen, eta besteak 19-20 urteren bueltan ibiliko ziren. Baten batek egin behar zuela eta, neuk hartu nuen mikrofonoa... eta gaur arte".

Boteprontoan iritsi zitzaion lehen aldi hartaz galdetuta, "nahiko ondo" sentitu zela dio. Esperientzia zipitzik ez zuen, izan ere, baina bai zaletasuna. "Beti gustatu izan zait esatarien lana. Jaramara karrerak ikustera joaten ginenean, beti egoten nintzen adi hango *speaker*-aren jardunari, gustatu egiten zitzaidan. Espainiako motokros txapelketak izan ziren bi urtetan Kontxan, eta Jaramako *speaker*-a etorri zen haietara. Eta ni gustura hari begira, haren azkartasuna!".

Txirrindulari lasterketak, krosak, mendi lasterketak, Lagun Arteakoen sari banaketak, Elkartasun Eguneako kirol ekitaldiak, Azpeitia Cup... Nagusiki herriko kirol ekitaldietan garatu du jarduna Gaztañak, baina bestelako ekitaldietan ere aritu izan da. 1999an, esaterako, Gipuzkoako Herriarteko Bertsolari Txapelketan Azpeitiak aurkeztu zituen hiru taldeetako batekin gai-jartzaile lanak egin zituen. "Egin nuen pasadizoa, baina ez da nire zera. Jakinduria eskatzen duen lana da, eta ez nintzen hain eroso ibili. Oso bertsozalea naiz, baina ez nuen lantegia menderatzen". Azpeititik kanpo ere behin baino gehiagotan lan egindakoa da: Elgoibarko motokros eta enduro lasterketetan lauzpabost urtez, Elgoibarren bertan sagardo txapelketan ere bai, Hernanin herri kiroletan "Goenatxorekin-eta

joanda", Ikastolen Elkartek Donostiako belodromoan egindako jaialdian "Gurutze Eizmendirekin bikotea osatuz"... Euskadiko Automobilismo Federazioaren denboraldi amaierako sari banaketa ekitaldien aurkezlea ere Gaztaña izan da aspaldiko urteetan. "2020an egin genuen azkena, Lazkaon. Handik gutxira itxi gintuzten, eta harrezkero batez".

Emozioa

"Emozioa". Esatari lanari lotuta sarri aipatzen duen hitza da hori. Batetik, "estilo" kontuak aipatu ditu Gaztañak. Ekitaldi bati, proba bati, ikusmin eta emozio gehigarria ematea gustatzen

Juanjo Bereziartua 'Gaztaña'

- **Adina:** 66 urte.
- **Ikasketak:** Oinarrizkoak.
- **Lanbidea:** Kooperatibetan lan egin zuen, erretiroa hartu arte: Danonan, Fagorren eta Fagor Ederlanen.
- **Esataria ez banintz...** Hobby gisa egiten dudan zerbait dela kontuan hartuta, ez nuke beste jarduera bat aukeratuko.
- **Aisialdian gogoko dut...** Kirol pixka bat egitea, ibiltzea batik bat. Auto edo txirrindulari lasterketara joatea. Eta txotxeko sasoian, sagardotegietara ere bai.



zaio beti, bere jardunarekin jendearen arreta eta sentipenak areagotzea eta ikuskizuna janztea, nolabait, eta horixe da beste esatariengandik gehien erakartzen duena ere; aipatutako Jaramako garai bateko speakerra bezala, Espainiako telebistetan F1-eko lasterketak emateagatik ezaguna den Antonio Lobato kazetaria ere gustuko du. Bestetik, esatari aritzeko ere nahiago ditu ikuskizun biziak, berezko emozioa dutenak, alegia. Ildo horreratik, karting lasterketetan esatari jardun izan duenetan "izugarri" gozatu izan duela aitortu du.

Ekitaldiak prestatzeko "etxeko lanik ez" du egiten Gaztañak. Bere "sistema" dauka, eta horrekin ondo moldatzen da. Lanean hasi baino "ordubete-ordu eta erdi lehenago" gelditzen da antolatzaileekin, tokatzen den proban parte hartu behar dutenen zerrenda, nabarmendu beharreko palmaresak eta datuak jaso, "sermoia pixka bat dotoretzeko", eta oinarri horrekin ekiten dio berriketari. Etorria eta inprobisazioa berarekin

behar ditu esatariak, Gaztañak aitortu duenez. "Inprobisatu dezente egin behar izaten da, emozioa eman nahi badiozu". Zer esan asmatu gabe, zuri gelditzea, ez zaio inoiz gertatu, ez du behintzat gogoan. "Esan beharreko gauzaren batzuk esan gabe gelditzea, bai". Ari denari gertatzen zaio huts egitea, akatsak egitea edo hanka sartzea ere badira esatariaren lanaren ajeak, eta horrelakoetatik ere ez da libratu.

Koronabirusak dena hankaz gora jarri zuenetik aukera gutxi izan da Gaztañaren ahots sendoa herriko bozgorailuetatik entzuteko. Erraz antzera etsi duela dio azpeitiarrak. Pandemia tarteko ala ez, mikrofonoetako jarduna uzten hastea buruan darabil. 67 urte beteko ditu ekainean, eta hil horretan egitekoa den Azpeitia Cup txapelketa jarri du jomuga, bere azken hitzordua izan daiteke hura. Baina...: "Bateren batek deitzen badit, konpromiso handiren bat duelako, eta neu ondo banago, ez dut pentsatzen ezetz esateko gai izango naizenik". ■■■

BETI ZUREKIN

GIPUZKOA
943 903 450

Bertako lagogailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Solbuespenik gabe.

KONTAKU HARTU

ZUREN JAHIENAK
BETI ZUREKIN

BARRUPA
TSITURAK


www.bertako.eus

Sudokua

Nola esaten diozu ondoko munstro handi hani, HERENSUGE ala DRAGOI? Egia esanda, biak dira onak, baina bigarrenak, sei hizki dituenaz, sudoku honetarako aitzakia eman digu. Beraz, bete itzazu hutsuneak DRAGOI hitza osatzen duten hizkiez (D, R, A, G, O eta I). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzean.


			O		
	O		R	G	
			G		O
	A			D	
D		O			G
	R		D		

Margotu



Zortziko txikia

Aurki itzazu hiru neska-mutilen eta haien isloren artean dauden aldeak. Zortzi dira guztira.



DOMINOAN

Txanogorritxoren dominoak sei elementu hauek ditu: Amonaren etxola, ehiztariaren eskapeta, saskia, otsoa, basoa eta Txanogorritxo. Aipatutako elementuak marraztuz, bete itzazu hutsuneak domino zatiak zentzua izan dezan.





Hona hemen Maripurtzil eta Pelloziri etsoz eta Txanogorritxo mazorrotuta, hurrenez hurren. Aurki ezazu itzal zuzena, eta bide batez, margo itzazu gure bi lagun bihurriak.



Bide batez, eman kolorez inudi hauei ere,

Mezua Konturatuko zinen bezala, arrietako jolasen gaiak liburu oso ezagunetatik hartuak dira. Hemen ezkutuan dagoena ere istorio ospetsu baten (zenburua da, eta Mariasun Landak idatzia da. Jarri marrazki bakoitzaren azpian bere hizkia eta agertuko zaizu. Erabili irudi-alfabetoa.



"Dual ereduan ikasten ari naiz, eta mundu profesionalera salto egin dut"

U nai Aranguren Ansoalde (Azkoitia, 21 urte) Ikus-entzunezko Komunikazioa (IKO) ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Definitu apur bat zure burua. Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Ba al duzu zaletasunik?

Azkoitian ikasi izan dut betidanik, baina unibertsitateara salto egiteko orduan, Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazio gradua aukeratu nuen. Gaur egun hirugarren mailan nago, eta dual ereduan ikasten hasi berri naiz Manahmanan. Argazkiak ateratzea eta akziozko bideoak grabatzea da nire *hobby*etako bat, zaletasunekin lotura zuzena duena, kirola egitea baita gaur egun nire zaletasun nagusia.

Zergatik aukeratu zenuen Ikus-entzunezko Komunikazio gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Nire zaletasunak kirola, ordenagailuak, eta gailu elektronikoak izan dira betidanik. Zaletasun horiei jarraiki egin nuen nire aukeraketa. Lagun batek gomendatu zidan gradu hori, eta metodologia eta ikaste prozesua aztertuta hartu nuen erabakia. Bereizgarria iruditu zitzaidan proiektuen bidez ikasteko aukera izatea; teoria hutsean oinarrituta ikastea baino metodologia hobea dela uste dut.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Ikasketa prozesua egokia izan dela esango nuke. Lagunarteko harreman ona daukagu graduan, eta irakasleek ikasleekin duten gertutasuna nabaria da. Edozein zailtasunaz gero, hori egon ohi dira laguntzeko, eta ikasten hari zarenean, eskertzekoa da hori.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Nik bizi izan dudanean oinarrituta, metodologia onena dela esango nuke. Azken batean, eginez ikastea da gehien balio duen metodologia. Lan mundura iritsitakoan, alferrik da teoria jakin baina egiten ez jakitea.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?



Unai Aranguren Mondragon Unibertsitateko ikaslea da.

Metodologia. Lehen esan bezala, proiektuen bidez ikastea nahiz materiala hartu eta erabiliz ikastea da niretzat graduaren gauzarik onena.

Zeintzuk dira etorkizunerako zure asmoak?

Graduan bertan bi ibilbide hautatzeko aukera eman digute. Nire aukeraketa etorkizunarekin lotuta dagoela esango nuke. Marketin Digitalarekin lotutako ibilbidea aukeratu dut, komunikazioarekin eta batik bat ikus-entzunezkoekin lotura zuzena duelako. Gainera, marketina lantzen hasi gara, eta gogotsu nago erronka berrirako. Horrez gain, dual eran lanean hasi berri naiz Manahmanan, eta mundu profesionalera salto egin dut.

Elektrizitatea



OIER ETXEBERRIA

Konektatu gabeko kableek ere errespetua ematen digutenontzat, ulertzen zaila da bonbilak pizten dituen gauza hori. "Karga elektrikoaren fluxuak sortutako fenomeno fisikoaren multzoa" omen. Behin, automatizazioa eta robotika azaltzen zituen irakasle batek honako definizio unibertsala eman zigun: "Ba al dakizue zer den elektrizitatea? Elektroien kalejira, neska-mutilak".

Beste hainbeste gairekin bezala, funtzionamenduaz arrasto handirik izan gabe ere, guztiz etxekoak zaizkigu voltak, kilowattak, motorrak edo lapurrak. Pentsa zenbateraino, non *argi-indar* deitzen diogun ikusten eta mugitzen ez den zerbaiti. Hala ere, ekaitz edo gainkargaren batek eragindako mozketak deskribatzeko dugun modua da kuriosoena: "Argia joan da!". Atea ireki eta alde egingo balu bezala. Argirik ez da joaten, etortzeari uzten dio.

Ezbairik gabe, XXI. mendearen hastapeneko iraultzarik handiena elektrizitatearena da. Bizikleta elektrikoarena, alegia. Ordea xahar batekin bidegorrian paseatu beharrean, bateriak motxilan hartu, eta gailurrez gailur, ziztu batean ibiltzea dago modan. Naturarekin kontaktuan, osasuntsu, baina gehiegi sufritu gabe. Gainera, sasoiko txirrindulari ez motorizatuei

erronka botatzen zaleak izaten dira.

Bizikleta elektrikoaren arrakasta ez da inondik ere kasualitatea. Begira aritu denak badaki ez direla lau pezetako jostailuak; eta hala ere, gurdikada bat sartu da eros ahalmen handiko eta krisi existentzial sakoneko bezero potentzialen garajeetan.

Kapitalaren gorpilean, bi modutara eman daitezke merkatu trantsizioak: tiraka edo bultzaka. Barne errekuntzako motordun kotxe diesel eta gasolinak erretiratu, eta hibrido nahiz elektrikoekin ordezkatzeko bidean gara. Erakunde ugari esku hartuta ere, kostatzen ari da. Aldiz, askoz azkarrago aldatu da auto turismoen flota, *SUV* lur-orotariko txikien mesedetan. Antzeko zerbait gertatzen da pedaldun ibilgailuekin ere. Fabrikatzaileak betiko zapata bidezko balaztak kendu eta disko galgak bultzatu nahian ari dira, beren errentagarritasunaren mesedetan. Txirrindulari klasiko askori, berriz, errezeloa eragiten die norbait bultzaka aritzeak.

**EZIN DA PUTZUETATIK
EDATEN SEGI, BAINA
ZEIN DA ETA NON DAGO
AGORTUKO EZ DEN
ITURRI HORI?**

Bidenabar, ez legoke soberan teknologiako irakasle guztiei gogoraraztea gaur egungo ikasleek ez dutela inoiz dinamodun bizikletarik izan. Beraz, elektrizitate sorgailuak eta haize erroten funtzionamendua azaltzeko beste adibideren bat erabiliko balute, hobe.

XX. mendearen hasieran, auto elektrikoak barne errekuntzakoekin lehian ari ziren. Ordea, gasolinazko motorra martxan jartzeko, manibelaren ordeztu motor elektrikoa garatu izanak (besteak beste) errekuntzako motorrek gain hartzea eragin zuen. Harrezkero, mugikortasun indibiduala erregai fosiletan oinarritu da.

Ekosfera irratsaioaren lerroburuak dio mundua ez duela mugitzen ez diruak, ez eta maitasunak ere; energiak baizik. Trantsizioak trantsizio eta guduak gudu. Aralarko artzain txaboletan panel fotovoltaiakoak ikusita, balirudike salbu gaudela; asmatu dugula iraunkortasunaren errezeta. Arazoa konplexuagoa da, ordea. Denok dakigu ezin dela putzuetatik edaten segi, baina zein da eta non dago agortuko ez den iturri hori?

Argi ilunak dituen zirkuitu da gurea, kapazitore handiek eta erresistentzia txikiek osatua. Hilabete bukaeran beti berdinean kalanbrea ematen diena. ■

Kulturaren eta lasaitasunaren zale

MAITE BEREZIARTUA MUSIKA IRAKASLEA

Txikitatik egon da dantzaren eta musikaren munduari lotuta Maite Bereziartua, eta gaur egun ere, horrela jarraitzen du; horiek ditu ofizio eta afizio. Zaletasun gutxiko emakumea dela dio, eta gutxirekin konformatzen dela. Bereziartuaren "beste aldea" ere kulturari lotuta dago.

Testua: **Maialen Etxaniz**. Argazkiak: **Utzitakoak**.

Dantza irakaslea, Sahatsako kidea edo piano jotzailea delako ezagutuko du zenbaitek Maite Bereziartua (Azpeitia, 1980). Beste batzuek Pikuanekoa delako izango dute haren berri, eta egongo da musika eskolan haren ikasle izandakoa denik ere. Gaur egun, musika irakaslea da Azpeitiko Ikastola Ikasberrin, eta lanean "gozatu" egiten duela azaldu du. Hark dio bizitza osoa daramala musikaren eta kulturaren hari gainean dantzan.

Hautzaroko oroitzapen politak ditu Bereziartuak. "Neska zintzoa nintzen, oso esanekoa; zuzena eta formala. Hautzaroko garaia bizi izan nituela esango nuke". Zintzoa izanagatik, denborarekin "nortasun handiko" neskatile zela ohartu da: "Gerora ohartu naiz nortasuna, behintzat, baneukala. Ikastolako lagun guztiak futbolearen aritzen ziren, eta ni ez; denak joaten ziren ingelesa ikastera, eta ni ez. Gustuko nuena egiten nuela esango nuke".

Ume-umetatik musika eskolan ibilitakoak dira Bereziartua nahiz haren ahizpa Garbiñe, eta betitik izan dute harremana musikarekin; Bereziartuaren kasuan, unibertsitateko ikasketak baldintzatzeraino iritsi da lotura hori. "Haurra nintzela hasi nintzen pianoa ikasten, eta horrekin batera, solfeoa eta

musikari lotutako beste hainbat kontu. Konturatzerako, urteak aurrera joan ahala, ikasketekin zer egin erabakitzeke garaia iritsi zen. Zalantzak nituen, ez nekien kontserbatoriora edo unibertsitatera joan nahi nuen. Zientziak gustatzen zitzaizkidan, baina ez ninduten konbentzitzen. Azkenean, musika espezialitateko Irakasle ikasketak hautatu nituen", gogoratu du.

Lana eta afizioa, eskutik

Ikasketak amaitu eta gutxira hasi zen irakasle lanetan musika eskolan, eta orduz geroztik, ez du esparru horretatik kanpora lanik egin beharrik izan. "Izan ditudan lan guztiak musikari eta dantzari lotutakoak izan dira; ez naiz sekula beste ezertan aritu. Zentzu horretan, oso zorteko sentitzen naiz; izan ere, ez dut sekula udan lan egin beharrik izan, ez dut tabernan lan egin, ez naiz aritu ume zaintzaile... Sortzen zitzaizkidan lan txikiekin moldatzen nintzen, eta behar nuenerako baneukan", azaldu du Bereziartuak.

Gaur egun ere, hezkuntzaren munduan jarraitzen du, eta gustuko du egiten duen lana. Ikasleekin sortzen den harremana da gehien atsegin duena: "Zorionez, 3 urtetik 12 urtera arteko ikasleei ematen dizkiet eskolak. Adin tarte handiko sare zabala da hori, eta ikasle horietako bakoitzak zerbait ematen dit: batzuk haurrak dira, besteak gaztetxoak, eta



Bereziartua mendian, 2021eko irailean.



Oñatz gastadoreen taldea zuzentzen, 2019an.



Bereziartua Sahatsaren emanaldi batean.

batzuekin nahiz besteekin lan egiteko modua ezberdina da. Horrek beti esna egoten laguntzen dit. Bizitza osoa daramat mundu honetan, eta zoragarria da nik horrenbeste gozatutakoa besteei irakastea".

Irakasle ez ezik, Sahatsa dantza taldeko kidea ere bada Bereziartua. Hankako arazo bat tarteko hainbat urtez dantzarik egin gabe egon den arren, ez du harremanik eten taldearekin, eta oraingoz han jarraitzeko asmoa du: "Dantza egin ezin nuenez, ikuskizunetan beste modu batera parte hartzen hasi nintzen; pianoa jotzen, hain zuzen. Partiturak prestatzen nituen emanaldien aurretik, entseatu... Horrela mantendu nuen harremana. Osatu ostean, noiz edo noiz itzuli naiz oholtzara dantza egitera, baina tarteka". Dena den, oraindik taldea uzteko asmorik ez duela aitortu du. "Hori zaila izango da".

Musika eta dantza ez diren beste zaletasunik ba al duen galdetuta, argi dio: "Egia esan, horiez aparte, afizio gutxi ditut. Pentsatzen jarri naiz, eta ohartu naiz horiez gain gauza gutxi ditudala benetan gustuko".

Folklorezale azpeitiarra

Bereziartua Aizarnan bizi da gaur egun, baina "azpeitiar petoa" dela dio. "Aizarnan bizi naiz, baina sekula ez naiz Aizarnakoa izan. Nire herria Azpeitia da, eta badaude herrira lotzen nauten hamaika kontu. Herriko festak ikaragarri gustatzen zaizkit, folklorika samarra naiz. Gainera, kulturarekin eta folklorearekin lotura duten hamar gauzatik

bederatzi atsegin ditut", esan du. Horren harira, gaineratu du Azpeitiko jaien artean sansebastianak eta karnabalak dituela gustuko. "Horiek dira bertakoon festak", dio.

Sansebastianetan nahiz karnabaletan ez da sokamuturrik falta izaten Azpeitian, eta horren zale ere badirela kontatu du Bereziartuak. Pluralean mintzo da, etxetik datorkien zaletasuna delako: "Gure etxean zezena eta somakuturra oso gertutik bizi izan ditugu, baita danborrada ere. Izan ere, gu Pikuanekoak ginen, eta handik ateratzen zen zezenzaleen danbor taldea. Gure etxean gordetzen zuten materiala, eta kantinerak zein banderadunak bertan jantzten ziren. Etxekook betidanik gertutik bizi izan dugun zerbait da danborrada, eta ikaragarri gustatzen zait. Gainera, musika eta festa uztartzen ditu, eta hori mundiala da". Gaur egun, Oñatz gastadoreen taldeko zuzendaria da Bereziartua, eta zuzentzen gozatu egiten duela aitortu duen arren, benetan gustatzen zaiona danborrada bera dela dio: "Danborra jotzea gustatzen zait, kantinera izandako aldietan disfrutatu egin dut, banderadun irtendakoetan ere ikaragarri gozatu dut, eta gaur egun zuzendari lanetan ere oso ondo pasatzen dut; festaren parte izateak betetzen nau, nolabait. Gainera, sansebastianen alderik hunkigarriena da horrenbeste herritarrek, denok elkarrekin, zerbait egitea".

Sokamuturzalea ere bada, baina zezenaren aurrean jartzea baino gehiago atsegin du bertan sortzen den giroa. "Sokamuturzalea naiz, baina



Umea zela hasi zen dantza ikastaroetan.

**"EGINDAKO LAN GUZTIAK MUSIKARI
ETA DANTZARI LOTUTA EGON DIRA;
EZ NAIZ BESTE EZERTAN ARITU"**

**"HERRIKO FESTAK IKARAGARRI
GUSTATZEN ZAIZKIT; FOLKLORIKA
SAMARRA NAIZ"**

**"DANTZA EGIN EZIN NUENEZ,
IKUSKIZUNETAN BESTE MODU
BATERA PARTE HARTZEN NUEN"**

gutxitan ikusiko naute zezenetik gertu; gehienetan, portalen batean sartuta egoten naiz, eta ziurrenik, ia-ia goiko solairuan", kontatu du barrezka.

"Sokamuturrak hainbat gauza dakartza berarekin; urtero joaten zaren portalean jendearekin egotea, zezen aldaketetan pipak jatea, zezena gerturatzean sortzen den zirrara..."

Inguruan eta ingurukoekin

Bereziartuak dio "sinplea" dela, eta ez duela askorik behar gustura egoteko. "Ez dut zaletasun askorik, ez bidaia perfekturik... Astea amaitzean gehien atsegin dudana autoa aparkatu eta lagunekin berriketaldi bat egitea da; lehen Azpeitian, orain Aizarnan.

Inguruan nahiz ingurukoekin egotea gustatzen zait gehien, eta lasai egotea", adierazi du. "Tartean behin mendi buelta bat egiten dut, Donostia aldera joaten naiz noizbehinka, baina oso tarteka. Ezer ez egiten egotea ere ederra da. Gainera, orain umeak ditugu, eta haiekin egotea dagokigu. Fase horretan gaude", azaldu du.

Kulturzalea da, baina irakurtzea ez da bere zaletasunen zerrendan sartzen. Sukaldaritza ere ez da bereziki atsegin duen zerbait, gastronomia bezalatsu. "Jatea ondo dago, baina nahiago dut mahai bueltan dagoen jendea mahai gainean dagoen jakia baino", dio.

Plan perfekturik ba ote duen galdetuta, ondo pentsatu du erantzuna: "Giro paregabeko egun batean lehorreko lekuren batera joatea lagunekin edo familiarekin, eta urrunean itsasoa ikusten baldin bada, hobeto. Hori bai, kultur ikuskizun edo emanaldiren bat balego, ezin hobeto".

Gutxirekin nahikoa duen horietakoa da Bereziartua, eta musika eta dantza ditu afizio eta ofizio. Gaur egun hurrekin ematen du denbora gehien, eta haiekin partekatzen du bere zaletasuna. Dena den, zera dio: "Nik nire zaletasunak ditut, baina nire seme-alabek beraienak izan ditzaten nahi dut. Hau da, ulertu behar dut, agian, haiei ez zaizkiela niri gustatzen zaizkidan gauza berak gustatuko. Horrelakoa da bizitza". ■



ARDO-ZALEAK ELKARTEAN

BAZKIDE BERRI BILA GABILTZA

Idatzi helbide honetara: ardozealeak1980@gmail.com

Aterkipean



MIREN SEGUROLA

Udalerri euskaldunetako egoera soziolinguistikoa gero eta aldakorragoa da, ekuazioan gero eta aldagai gehiago sartzen diren heinean. Baita Azpeitian ere. Denok ulertzeko moduan ere esan daiteke: *euskaldun petoak* izendatu izan direnak gero eta gutxiago dira. Aldiz, gero eta gehiago dira euskaldunak izan arren lehen hizkuntza beste bat dutenak. Azpeitian, lautik bat pasatxo.

Azpeitiko datuei begiratuz gero, esaterako, azken hamabost urteotako aldaketa esanguratsua da. 2004an, haur jaioberrien amen nazionaliteari dagokionez, %4,5 zen karneteen 'espainiarra' jartzen diguten hori ez zutenen kopurua. Hamabost urte geroago, 2019an, %24 zen kopuru hori. Horrek esan nahi du Azpeitian erroldatutako lau haur jaioberritatik batek 'espainiarra' ez den ama duela, alegia. Eta hiruk euskalduna edo espainiarra. Azpeitia bezalako herri batean, eskolaren bidez zein kaleko egungo arau sozialari esker, haur horiek guztiak euskaldunak izango dira.


Uemak ikus-entzunezkoen kontsumoaren inguruan egindako azken ikerketaren arabera, Azpeitian gehiago dira azken telesaila ingelesez ikusi dutenak euskaraz ikusi dutenak baino, Youtube euskaraz kontsumitzen dutenak ez dira %3ra iristen, eta entzuten duten musikaren artean euskarazkoa ez da %25era iristen. Gainera, datuak adin tarteka aztertuz gero, are eta kezkagarriagoak dira LHko ikasleek aitortuak Batxilergoan ari direnenak baino.

Duela 20 urte, kanpotik Azpeitira Haur Hezkuntzara zetorren edozein haur erdaldunek ez zuen beste erremediorik, euskaraz egiten zuen eta kitto. HHko haur gehienek ez zuten gaztelaniaz egiteko gaitasun nahikorik. Gaur egun, aldiz, gaztelaniaz jolasteko ere gai dira.

Argia da, azpeitiar euskaldunen ezaugarriak aldatzen ari dira nabarmen, garaiak ere aldatu egin baitira. Jatorriz euskaldunak diren belaunaldi berriek kontzientzia askoz apalagoa dute. Beste askoren ama hizkuntza ez da euskara. Erdaren erauntsia etengabea da gazteentzat giltzarri diren esparruetan. Euskarazko telebista publikoak ere gartzelerazko saioekin konkistatzen ditu gure etxeak. Oro har, beraz, erdaretara jotzera garamatzan zirimiria ez du etenik, eta dena bustitzen du. Aterkirik gabe, beraz, jai daukagu. Euskararen erabilerari eutsi nahi badiogu, euskaraz bizi nahi badugu, herritarrak horretara bideratuko dituen ekimen eredugarriak, interesgarriak eta argiak behar ditugu. Horretan, Azpeitia eredu da kontu askotan. Aterkipean gaude herrian. Baina eguraldi makurrarekin, aterkipean ere bustitzeko arriskua dago, eta horren kontzietzia hartu beharra daukagu. ■■■

**ERDARETARA JOTZERA
GARAMATZAN
ZIRIMIRIAK EZ DU
ETENIK, ETA DENA
BUSTITZEN DU**

MARKETING DIGITALA



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KANPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA

GUKA       ZERBITZUAK

SANTA ESKE GARAI MODERNOTAN



MAHAI EGUTEGIA 2022



1€




HITZAko bulegoan eskuratu
AZPEITIA

Soreasu 1. Dinamoa • 943-81 38 41

ZARAUTZ

Araba kalea 27 • 943-87 00 17



Hariarekin jolasean

Haria, egurra eta puntapaxak erabiliz hainbat irudi sortzeko gai da Igor Aranbarri (Azpeitia, 1977), *string art* deituriko teknika baliatuta. Forma geometrikoak, mapak, eta azkenaldian, gehienbat, pertsonen aurpegiak sortzen ditu.

Argazkiak eta testuak: **Nora Alberdi.**

'STRING ART'

Aranbarri makrame teknika erabiliz hasi zen hariarekin lehen lanak egiten. Latinoamerikan zehar bidaiatu zuen bost urteetan ikasi eta landu zuen teknika hori. Behin Euskal Herrira itzulita, *string art* teknika probatu zuen. Ordutik lau urte pasatu dira, eta hainbat lan gauzatu ditu. Hastapenetan, mandalak eta forma geometrikoak sortzen hasi zen, eta txundituta gelditu zen marra zuzenekin zirkunferentziak nola sor zitezkeen ikusita. Irudian, *string art* teknika erabilia sortutako forma geometrikoa.



AUTODIDAKTA

Mexikon izan zuen *string art* teknikaren berri, eta han zertxobait trebatu bazen ere, bere kasa, etxean tutorialak ikusiz, ikasi du gehien. Gainera, orain dela hilabete gutxi, hariekin erretratuak egiteko modu bat deskubritu zuen: "Argazki bat oinarri hartuta, ordenagailuko programa baten bidez, irudia zertxobait editatzen dut. Ondoren, programa informatiko baten bidez, zenbaki segida zehatz bat lortzen dut. Segidan, 250 puntapax erabilia, horietako bakoitzari zenbaki bat esleitu eta sekuentzia edo segida bat jarraitzen dut, irudia osatu arte". Argazkian, Aranbarri Joxe Lizaso zenaren irudia eskuetan duela.



HARI BAKAR BAT

Obra guztia hari bakarrarekin egiten saiatzen da artisaua. Normalean, mila edo bostehun metroko hariak erabiltzen ditu. "Josteko hari normala erabiltzen dut, eta ez du gogortasun handirik izaten. Batzuetan, obra egiten ari naizen heinean, haria gehiegi tenkatzen badut, puskatu egiten da, eta orduan beste hari bat lotu behar izaten dut". Apurtu zitzaion lehen aldian gauza bat ikasi zuen: egurraren ertzetan jartzen dituen puntapaxetan buelta bat baino gehiago ematea komeni zela. Irudian, amaitutako obra baten haria.



PAZIENTZIA ETA LASAITASUNA

Aranbarriri lasaitasuna ematen dio obra horiek sortzeak. "Guztiz kontzentratuta egon behar izaten dut lanean ari naizenean. Lehen musika edo irratia jartzen nuen, baina despistatu egiten nintzen. Irratiak zioenaren inguruan pentsatzen hasi eta konturatzerako galdu egiten nintzen. Orain, erretratuekin zenbaki segida bat jarraitu behar dudanez, asko kontzentratu behar izaten dut". Argazkian, konpas handi batekin zirkulua marrazten ari da.



ARTISAU AZOKAK

Hastapenetan, artisau azoketara joateko ohitura handia zuen. Baina, gero, ostalaritzan lanean hasi zenean, horretarako zailtasunak sortu zitzaizkion. Gaur egun, azoka bat edo beste antolatu ohi dute inguruotan, baina gehienak sasoi jakinetan izaten dira; Gabonetan, adibidez. "Bukatutako lan asko izan behar dira saltzeko eta postua ordaintzeko. Artisau lanetan bakarrik aritzen bazara, errentagarria da, baina ez da nire kasua". Aranbarrik lana egiten duen tabernako biltegian sortzen ditu obrak. Irudian, artisau azoka batean jarri zuen postua.



EGURRA

Haria bezain garrantzitsua da egurra. "Ez ditut egur oso garestiak probatu, pinuarekin eta DM egurrarekin bakarrik egin ditut lanak. Pinua prezioz ondo dago, eta naturala izateak bere puntua du, baina bigunegia da. Puntapaxak ondo sartzen dira, baina hariaren indarrarekin ateratzea errazagoa da. Horregatik, lan txikiak egiteko bakarrik balio du pinuak". Enkarguaren arabera, ordea, beste egur batzuekin ere egin dezake lan Aranbarrik. Esaterako, Garai ileapaindegia erreforma egin zuenean, arotzak berak zuzenean horman jarritako egurraren gainean egin zuen logotipoa. "Beldur pixka bat eman zidan, baina oso ondo gelditu da". Irudian, Garai ileapaindegian egindako obra.

MAPAK

Mapak ere egiten ditu Aranbarrik. Orain arte egin duen handienak bi metroko zabalera eta metro bateko altuera ditu. Azkoitiko Aizterri Hizkuntza Eskolarako egin zuen lan hori. "Asko gustatu zitzaidan lan egiteko modua. Beraiek esan zidaten zer hari kolore erabili, eta eskolako horman bertan egin nuen obra. Oso eroso sentitu nintzen, eta oso erraza izan zen beraiekin lan egitea". Mapen kasuan, ez du zenbaki segida batekin lan egiten; haren arabera, lan egiteko modua "askeagoa" da, formak ez baitira "hain zurrinak". Helburua lurralde guztiak modu orekatu batean hariz lotuta egotea da. Irudian, Aizterri Hizkuntza Eskolako horma.

**ERRETRATUAK**

Azken hilabeteetan erretratuen enkarguak jaso ditu gehien, eta horretan espezializatu nahiko luke. "Lan bereziak dira. Jende ugari ari zait eskatzen oparitarako, batez ere, haurren erretratuak". Egunen batean mural handi bat egitea nahiko lukeela dio: "Norbaitek bere etxeko hormaren bat dekoratu nahiko balu, ni prest egongo nintzateke probatzeko. Erretratu bat egitea oso zaila ikusten dut, baina mandala handi bat egitea gustatuko litzaidake". Harrihari Artisautzak izenez aurkitu daiteke Aranbarri sarean. Irudian, haur txiki baten erretratua. ■■■

SOKA LUZEAN



JANIRE ALKORTA

Kombucha

Ukazina da euskaldunok alkoholaren bueltan sozializatzeko joera handia daukagula. Askotan pasatu izan zait lagunekin zerbait hartzera irten eta zer eskatu ez jakitea. Alkoholdun edarietatik eta freskagarrietatik harago ez baitago aukera handirik gure tabernetan.

Orain dela urte batzuk egin nuen bidaia batean izan nuen lehen kontaktua kombucharekin. Momentu hartan ez nion kasu handiegirik egin, baina azken urteetan bere presentzia gero eta nabarmenagoa da tabernetan, jatetxeetan nahiz jaki dendetan. Batzuen ustez, milurteko berriko edaria da. Aspaldidanik kontsumitzen den arren (K.a. 220. urtean Txinako Manchuria eskualdean sortu zen), oraintsu arte ez da komertzializatu Espainiako Estatuan. 2016. urtetik aurrera, kombucharen salmentak iraunkor doaz gorantz, eta denbora gutxiaren buruan, salmentak hirukoiztu egin dira.

Kombucha te azukretsu fermentatua da. Azukrea eta tea SCOBY (*Symbiotic Culture Of Bacteria and Yeast* ingelesez) deituriko legamiaz (ondoa) eta bakteriaz osaturiko kolonia batera botatzen dira. Hiru asteren buruan, prest dago edabe magikoa. SCOBYa, disko zuri potoloa, bakteriek sorturiko zelulosaz osaturik dago. Legamia eta bakteriak bertan elkarrekin bizitzeaz gain, elkarlanean

aritzen dira, azukrea deseginez bi fermentazio motaren bitartez: alkoholikoa eta azetikoa.

Lehendabizi, legamiak etanola (C_2H_5OH) sortzen du. Horretarako, ondooak entzima batzuk sortzen ditu, non azukrea (sakarosa) molekula txikiagoetan desegiten duen: fruktosa eta glukosa. Ondoren, glukosa pirubatoan ($C_3H_4O_3$) desegiten da, gero azetaldehidoan (C_2H_4O), eta, azkenik, etanolean (C_2H_5OH), CO_2 a askatuz.

Baina SCOBYak ezin du bizi alkoholaren presentzian. Hori dela eta, SCOBYan dauden bakteriek azido azetikoan (CH_3COOH) eraldatzen dute alkoholaren zatirik handiena, edariari ozpin ukitu bat emanez. Zapore atsegineko kombucha lortu ahal izateko, beharrezkoa da oreka egokia izatea desegiten den glukosa eta sortzen den azido azetiko kantitatearen artean.

Onura asko eragiten ditu kombuchak: besteak beste, metabolismoa suspertzen, arterietako presioa murrizten edo digestioa bizkortzen ditu. Baina momentuz ez dago onura horiek guztiak baieztatzen dituen ebidentzia zientifikorik. Ez dakit kombucha esaten duten bezain magikoa den, baina ukazina da hura sortzeko gauzatzen den prozesu biokimikoa liluragarria dela. Gutxienez, gure elikaduraz hausnartzen laguntzen badigu, ez da gutxi. Has gaitezen ba! ■■■

BOTEPRONTOAN



IGNACIO ARAKISTAIN

Festarik ezean, jai!

Egon behar zenuke garaiotan, irakurle, trastelekura bueltaka. Bertan gorde ohi dugu festarako beharrezkoa den guztia, izan danbor, mozzorro, amantal edo txapel. Beren unea noiz iritsiko zain daudela, irrikaz iratzartzen ditugu hauts artetik poztasunaren erlikiok, beren konpainian oroitzapenak fabrikatzen jarraitzeko ilusioz. Aspaldi honetan, orde, egutegiei agortu ei zaie tinta gorria, koronabirusak lapurtu baitigu bestarako beta. "Lan egin duenak ongi merezia du jaieguna", esan ohi da. Gehituko nioke, sufrimendua pairatzen duenak ere beharko lukeela izan noizbait zoriona. Kolore desberdinetako herritarrok batzen gaituzten okasioen faltan, nola eraiki herri sena?

Esan ohi da herri bateko jaiak bertakoen izaeraren isla fina direla. Azpeitiarrok gainean daramagu kopiatzaile merke fama. Egiaatik urrun ez dabilztan arren, zenbaiti esango nieke ukitu pertsonala emanez geure egin ditugula mugez haratago sortutakoak. Bagara festazale, eta bi urteren bueltan, badugu jai gosea asetzeko premia, festarik gabe jai baitugu garena ospatzea plazer dugunok. ■■■



TiEN21ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com



35. URTEURRENA



URTEURRENA OSPATZEKO **OPARIAK** DITUGU



ERNIO SUKALDEAK

 Arzubia hiribidea, 51 • 20730 AZPEITIA

 erniosukaldeak@erniosukaldeak.com

 Telefonoak: 943-81 57 05 / 943-15 00 63